



 BOOKTEGI

hodeiak

ARISTOFANES

itzulpena:
Miren
Aizpuru



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

ARISTOFANES

hodeiak

Itzulpena:

Miren Aizpurua

Hodeiak Aristofanes atenastarraren komedia goiztiarra da, eta, bere egilearentzat, egin zuen komedia finena. Bertan, sofisten eta haien irakaskuntzen kritika sendoa egiten da, eta K.a. V. mende amaierako Atenasen modan zeuden gaiak eta pertsonak agertzen dira.

Hodeiak emakume biluziek antzeztu zituzten lehen aldiz irudikatu zenean, K.a. 423. urtean lehiaketa batean. Baina Aristofanesek ez zuen lehia irabazi, eta horregatik testua berriz idatzi zuen K.a. 420-417 urteen artean. Hori jakin daiteke iritsi zaigun bertsoan korifeoak ikusleei galdu izana aurpegiratzen dielako.

Hodeiak lanean agertzen da Sokratesi buruzko lehen erreferentzia historikoa. Sofista gisa aurkezten da, normalean Sokratesen irudia izan denaren kontra. Gaur egun, ordea, aitortzen da antzerki honetan daukan irudian badagoela egia pixka bat.

Pertsonaiak

ESTREPSIADES¹, Atenasko nekazaria.

FIDIPIDES, semea.

ESTREPSIADESEN ESKLABO BAT.

SOKRATESEN DIZIPULU BAT.

SOKRATES, filosofoa.

HODEIEN KORUA, emakume itxuran.

ARGUDIO BIDEZKOA, antzinako itxura duen gizon zahar batek irudikatzen du.

ARGUDIO BIDEGABEA, janzkera modernoko gaztea.

HARTZEKODUNA 1

HARTZEKODUNA 2

KEREFON, SOKRATESen ikaslea.

HITZIK EGITEN EZ DUTENAK:

SOKRATESen ikasleak;

HARTZEKODUN 1-en lekukoak ;

Jantias, ESTREPSIADESen esklaboa;

beste esklabo batzuk.

¹ *Iraultzailea* esan nahi du, bueltak ematen dituena.

LEHEN EKITALDIA

Bi etxe daude, bata handia, ESTREPSIADESen, eta bestea txikia, non SOKRATES eta bere dizipuluak bizi diren. Lehen planoan, ESTREPSIADESen etxearen aurrean, barnealde bat itxuratu da. Gaua da oraindik. Bi ohe daude, eta haietan ESTREPSIADES eta bere seme FIDIPIDES dautza. Aita ohean bueltaka dabil eta azkenean jaiki egiten da.

ESTREPSIADES Ai, ai, Zeus subiranoa!, bai luzea dela gaua! Bukaezina da. Ez ote du inoiz argituko? Egia esan, bada denbora puska oilarrari kantatzen entzun diodanetik, baina esklaboak oraindik zurrungan ari dira. Lehen ez zen horrelakorik gertatuko. Madarikatua zu, gerra, madarikatua hainbat eta hainbat gauzogatik, jada esklaboak zigortu ere ezin ditut-eta egin!² Mutil hau ere ez da gau osoan esnatzen. Hara nola ari den puzkerka bost mantatan ondo bilduta! Tira, ondo baderitzozue, goazen zurrungan aritzera ondo tapaturik. (*Etzan eta tapatu egiten da.*) Ez, ezin dut lorik egin, gaixoa ni! Gastuek, askek eta zorrek hozkatzen naute seme honen erruz. Bera, ile luzearekin, zaldian ibiltzen da, gurdia gidatzen du eta beti ari da zaldiekin ametsetan. Ni, ordea, lur jota egoten naiz ilargiak hilaren hogeia berriro ekartzen didala ikusten dudanean, interesak metatu egiten baitira. (*Etixerantz*). Mutil, hartu kriseilua eta atera nire kontuen apunteak, dirua nori zor diodan begiratu eta interesak kalkulatzeko. (*Esklabo batek kriseilu bat dakar eta taulatxoak kontuekin.*) Ea zer zor dudan. «Pasiasi hamabi mina³». Zertatik, hamabi mina Pasiasi? Zergatik eskatu nizkion? A, bai: «Coppa» letraz markatutako zaldia erosi nuenean. Gaixoa ni! Hobe nuke lehenago kopa batekin begia hustu banu!

FIDIPIDES (Lo.) Filon, tranpatan ari zara. Zoaz zure bidetik.

ESTREPSIADES Hori, hori da lur jota naukan zorigaitza: lotan ere zaldiekin amets egiten du.

FIDIPIDES (Lo.) Zenbat buelta eman behar dizkiote pistari gerra-gurdiek?

ESTREPSIADES Zuk bai niri bueltak emanarazi!, zure aitari! Pasiasen ondoren, zein zorretan sartu nintzen? «Aminiasi hiru mina, gurdi txiki bategatik eta pare bat gurpilgatik».

FIDIPIDES (Lo.) Zaldia eraitsi eta gero eraman ukuilura.

ESTREPSIADES Ai, adiskidea!, ni bai ederki eraitsi zuk... nire ondasunetatik kanpora: jada hainbat auzi galdu ditut eta beste hartzekodun batzuek diote interesengatik bahitu egingo dizkidatela ondasunak!

² Bake denboretan, zigortu nahi ziren esklaboak landara bidaltzen zituzten, hango lanak gogorragoak izaten zirelako.

³ *Mina* txanpon izena da. Eta aurrerago aterako diren *talentu*, *estatero* eta *oboloak* ere txanpon izenak dira.

- FIDIPIDES** (*Esna.*) Ea, aita; zergatik haserretzen zara eta zergatik ematen duzu gau osoa itzulika?
- ESTREPSIADES** Manta artean hazkuraka ari zait... demarko⁴ bat.
- FIDIPIDES** Utzidazu lo pixka bat egiten, gizona! (*Berriro tapatu eta lo jarraitzen du.*)
- ESTREPSIADES** Nigatik, egin lo! Baina jakizu: zor hauek guztiak zure arazoa izango dira. A, hobe nuke zure amarekin ezkontzera bultzatu ninduen ezkontzagina lehertu izan banu! Nik oso nekazari bizitza atsegina neukan: zikina eta krakatsua, etzanda patxada ederrean, artalde pila batekin, erleen ezitia, oliba txikituak barra-barra. Baina Megaklesen seme Megaklesen ilobarekin ezkondu nintzen, ni, nekazari bat, hiriko batekin: Zesiraren tankerako andrexkila bat, luxuagatik burua galtzen duena. Ezkondu ginen egunean, nik, bere ondoan etzanik, ardo berriaren usaina nuen, piku lehorrena, artile malutena eta ugaritasunarena, baina berak perfume usaina zuen, azafrai usaina, musukatze usaina, zarrastelkeria, tripazainkeria eta Afrodita Koliade eta Genetildeneren⁵ usaina. Hala ere, ezin dut esan alferra zenik. Etengabe aritzen zen lan eta lan larrua prestatzen. Azkenean esan behar izaten nion: «Andrea, larrua gehiegi jotzen duzu».⁶
- ESKLABOA** (*Itzali egiten da kriseilua.*) Ez daukagu oliorik kriseiluan.
- ESTREPSIADES** Arraioa! Zergatik piztu duk hainbeste gastatzen duen kriseilua? Hator hona! Larrutik ordainduko didak!
- ESKLABOA** Zergatik ordea?
- ESTREPSIADES** Metxa lodienetako bat sartu huelako. (*ESKLABOA badoa.*) Aurrerago, seme hau jaio zitzaigunean, izenagatik borrokan hasi ginen. Berak «ipo»⁷ erantsi nahi zion izenari: Jantipo, Keripo edo Kalipides, nik, berriz, Fidonides jarri nahi nion, aitona bezala. Denborak aurrera egiten zuen erabakitzen genuen bitartean, eta azkenean jarri ginen ados. Fidipides jarri genion. Berak haurra hartu eta maitasunez esaten zion: «Handitzen zarenean eta gurdia Aropolisera gidatzen duzunean Megaklese bezala, luxuzko tunikarekin...» Nik, aldiz, esaten nion: «Aitzitik, aita bezala, ardiak ekartzen dituzunean harkaiztitik, zamarra jantzita». Baina berak ez zidan kasu zipitzik ere egiten, eta horrek ekarri zuen nire ondasunen gainera zaldiaren izurria. Gau guztia daramat kinka honetatik nola atera pentsatzen, eta azkenean, uste dut asmatu dudala guztiz bikaina den bide bat. Bide horri jarraitzeko konbentzitzen badut, salbatu naiz. Tira,

⁴ Demarkoa epaile mota bat zen.

⁵ “Buztanen Afrodita eta Haurreragilea” izango litzateke euskaraz.

⁶ Jatorrizkoan emazteak ez du larrua prestatzen, oihalak ehuten ditu. Oihalak ehuteak gure “larrua jotzea”ren esanahia zeukan.

⁷ *Hippos*: zaldia

lehenengo esnatu egin behar dut. Nola esnatuko nuke xuabe? Ea, nola?
Fidipides, Fidipidestxo!

- FIDIPIDES** Zer dugu, aita?
- ESTREPSIADES** Emadazu musu, eta orain zure eskuin eskua.⁸
- FIDIPIDES** (*Eseri eta eskua luzatzen dio.*) Hemen duzu. Zer gertatzen da? (*Oheak atera egiten dituzte eszenatokitik.*)
- ESTREPSIADES** Esan. Zuk maite al nauzu?
- FIDIPIDES** Bai, ala Poseidon Hipikoa, hemen dagoena! (*Estatua bat seinalatzen du.*)
- ESTREPSIADES** Ez, ez, Hipikoagatik ezta pentsatu ere, hori da eta nire zorigaitzen errua duen jainkoa. Benetan maite banauzu, bihotzez, obedi iezadazu, seme.
- FIDIPIDES** Eta zertan obeditu behar dizut?
- ESTREPSIADES** Alda ezazu derrepentean zure bizitzeko modua, eta zoaz nik agindutakoa ikastera.
- FIDIPIDES** Ea, ba. Zer agintzen didazu?
- ESTREPSIADES** Kasu egingo didazu?
- FIDIPIDES** Egingo dizut kasu, ala Dioniso!
- ESTREPSIADES** Ederki, begira ba hemen! Ikusten al dituzu etxetxo hori eta atetxo hori? (*SOKRATESen etxea seinalatzen du.*)
- FIDIPIDES** Bai. Zer da hori, aita?
- ESTREPSIADES** Hori da espiritu bikainen hausnartokia. Hor bizi diren gizonak zeruaz hizketan ari bazaizkizu konbentzituko zaituzte zerua labe tapa bat dela, gure inguruan dagoela eta gu garela ikatza. Ordaintzen badiezu, auzi guztiak irabazten irakatsiko dizute, bidezkoak izan nahiz bidegabeak.
- FIDIPIDES** Eta nor dira?
- ESTREPSIADES** Ez dakit izena zehazki. «Hausnarpentsatzaileak» dira, etxe oneko jendeak.
- FIDIPIDES** Ba, ardalio atorrante batzuk. Badakit nor esaten duzun: oinutsik eta zurbil dabilzan hamalau usteko horiek, Sokrates koitadua eta Kerefon tartean.

⁸ Eskuin eskua emateak ematen zion seriotasuna egitekoari.

- ESTREPSIADES** Et, et, ixo. Ez esan umekeriarik. Zure aitaren babak batere axola bazaizkizu, mesedez, sar zaituz beren taldean eta bidal itzazu zaldiak pikutara.
- FIDIPIDES** Ezta pentsatu ere, ala Dioniso! Ezta Legoras aberatsak hazten dituen faisaiak emango bazenizkit ere.
- ESTREPSIADES** Tira, zoaz, mesedez eskatzen dizut, nire bihotzeko semea; zoaz ikastera.
- FIDIPIDES** Eta zer ikastea nahi duzu?
- ESTREPSIADES** Diotenez, eurekin daude bi Argudioak, Bidezkoa, dena delakoa, eta Bidegabea. Bi Argudio horietatik Bidegabeak irabazten omen ditu prozesuak auzi bidegabeak defendituz. Beraz, argudio bidegabe hori ikasten badidazu, zure erruz orain zor dudan guztiarengatik ez nioke obolo bakar bat ere itzuli beharko inori.
- FIDIPIDES** Ezin dizut obeditu, ez nintzateke-eta zaldunei begiratzen ere ausartuko horren koloretartuta egonik.
- ESTREPSIADES** Ala Demeter! Ba niretik ez duzu mokadu bat ere jango, ez zuk, ez orgazaldiak, ezta s-az markatutako zaldiak ere. Etxetik botako zaitut, haize freskoa hartzera!
- FIDIPIDES** Ba osaba Megaklesek ez du onartuko ni zaldirik gabe geratzea. Ale, banoa barrura, eta hor konpon! (*Bere etxean sartzen da.*)
- ESTREPSIADES** Ba ni, behintzat, ez naiz horrela geratuko, lur jota. Jainko-jainkosei gomendatuko natzaie eta nerau joango naiz hausnartokira, irakats diezadaten. Baina niri, holako zahar, ahazkor eta astakirten izanik, nola sartuko zaizkit fintasun horiek, argudio dotore horiek? Joan beste erremediorik ez dut. Zergatik ari ote naiz txorakeria hauetan denbora galtzen atea jo beharrean? (*Hausnartokiko atea jotzen du.*) Mutil, mutil!
- DIZIPULUA** (*Atea irekiz.*) Arraioa! Nor ari da ate-joka?
- ESTREPSIADES** Estrepsiades, Fidonen semea, Zizinakoa.
- DIZIPULUA** Astakirten bat, ala Zeus! Ateari jo diozun ostikada ikaragarri horrekin, ideia asmatu berri bat galarazi didazu.
- ESTREPSIADES** Barkatu, izan ere ni urrun bizi naiz, mendian. Tira, esadazu galdutako ideia hori.
- DIZIPULUA** Dizipulu ez direnei esaten ez digute uzten.

- ESTREPSIADES** Orduan, esadazu lasai ederrean, ni hausnartoki honetara ikasle izatera etorri naiz eta.
- DIZIPULUA** Esango dizut, baina gauza hauek misteriotzat hartu behar dira. Orain dela gutxi, Sokrates Kerefoni galdezka aritu zaio arkakuso batek zenbat aldiz salto egin dezakeen bere oinen luzera, arkakuso batek Kerefonen bekaina hozkatu eta gero Sokratesen burura jauzi egin duelako.
- ESTREPSTADES** Eta nola neurtu du?
- DIZIPULUA** Oso modu irudimentsuan. Argizaria urtu du; gero arkakusoa hartu eta bi oinak argizaritan murgildu dizkio; argizaria hoztu denean, txapinak sortu zaizkio oinetan; erantzi egin dizkio, eta haiekin distantzia neurtu du.
- ESTREPSIADES** Ala Zeus gailena! Hori buru argia!
- DIZIPULUA** Zer esango zenuke, orduan, Sokratesen beste pentsamendu baten berri izango bazenu...
- ESTREPSIADES** Zein? Mesedez, kontatu.
- DIZIPULUA** Esfetoko Kerefonek galdetu zion ea, bere ustez, eltxoek muturretik edo ipurditik burrunbatzen duten.
- ESTREPSIADES** Eta zer esan zuen berak eltxoari buruz?
- DIZIPULUA** Eltxoaren hestea estua dela, eta hodi mehe bat denez, airea zuzen-zuzenean pasatzen dela bertatik ipurdiraino. Ondoren, uzkia, hodi estu baten ondoan dagoen espazio huts bat denez, airearen indarrez egiten duela zarata.
- ESTREPSIADES** Beraz, eltxoen uzkia tronpeta bat da. Hiru aldiz biba heste-ikerketa honengatik! Salatuko balute, eltxoaren hestea hain ongi ezagutzen duena berehala errugabetuko lukete.
- DIZIPULUA** Ba duela pare bat egun, pentsamendu handi bat galarazi zion sugandila batek.
- ESTREPSIADES** Nola? Kontadazu.
- DIZIPULUA** Ilargiaren ibilera eta joan-etorriak ikertzen ari zen, eta, gora begira zegoenez gauean ahoa zabalik, sugandila batek kaka egin zion teilatu-hegaletik.
- ESTREPSIADES** Bai barregarria Sokratesi sugandila batek ahora kaka egite hori!
- DIZIPULUA** Ba atzo gauean ez genuen afaririk.

- ESTREPSIADES** Horra! Eta nola moldatu zen babak lortzeko?
- DIZIPULUA** Mahaia errauts kapa fin batez zikindu zuen, burrunzia okertu zuen, konpas bat balitz bezala erabili zuen... eta kapa bat lapurtu zuen gimnasiotik, saltzeko.
- ESTREPSIADES** Orduan, zergatik jarraitzen dugu ditxosozko Tales hura miresten? Ireki, ireki hausnartokia, bukatu jada, eta esadazu SOKRATES nor den lehenbailehen, bere dizipulu izan nahi dut eta. Ale!, ireki atea! (*DIZIPULUak atea irekitzen du. Agertokian hainbat dizipulu talde ikus daitezke.*) Herakles!, nondik atera dira zomorroide hauek?
- DIZIPULUA** Zergatik harritzen zara? Zeren antza ikusten diezu ba?
- ESTREPSIADES** Pilosen preso hartutako lakondarrena. Baina zergatik ari dira lurrera begira horko horiek? (*Dizipulu talde bat seinalatzen du.*)
- DIZIPULUA** Lur azpian dagoena ikertzen ari dira.
- ESTREPSIADES** Orduan, tipula bila dabilta. (*Taldeari.*) Ez horregatik gehiago kezkatu, nik badakit-eta non hazten diren handi eta ederrak. Eta zertan ari dira beste horiek, makur-makur eginak daudenak? (*Beste talde batengatik.*)
- DIZIPULUA** Horiek Tartaroz haratago dagoen ilunbeltza ikertzen dute.
- ESTREPSIADES** Eta zergatik daukate ipurdia zerura begira?
- DIZIPULUA** Astronomia ikasten ari direlako bere kasa. (*Etiket kanpora dauden dizipuluei.*) Tira, sar zaitetze, bestela kanpoan harrapatuko zaituzte-eta.
- ESTREPSIADES** Oraindik ez, oraindik ez; gera daitezela pixka bat, nire kontutxo baten berri eman nahi nieke.
- DIZIPULUA** Ez zaie uzten, ordea, denbora luzez aire librean egoten. (*Aipatutako dizipuluak hausnartokian sartzen dira.*)
- ESTREPSIADES** (*Gauza batzuk erakusten ditu.*) Ala zerua!, zer da hau? Esadazu.
- DIZIPULUA** Hemengo hau astronomia da.
- ESTREPSIADES** Eta beste hori, zer da?
- DIZIPULUA** Geometria.
- ESTREPSIADES** Eta zertarako da?

- DIZIPULUA** Lurra neurtzeko.
- ESTREPSIADES** Saitetan esleitzen den lurra?
- DIZIPULUA** Ez, Lur osoa.
- ESTREPSIADES** Bai gauza ona! Ideia hori demokratikoa eta erabilgarria da.
- DIZIPULUA** Eta hau mundu osoaren mapa da. Ikusten? Hemen dago Atenas.
- ESTREPSIADES** Zer diozu? Ez dut uste. Ez ditut epaileak bilduta ikusten...
- DIZIPULUA** Egon zaitetz ziur lurralde hau Atika dela.
- ESTREPSIADES** Eta non daude Ziziniakoak, nire bizilagunak?
- DIZIPULUA** Hementxe daude. (*Mapako toki bat seinalatuz.*) Eta beste hau, ikusten duzunez, Eubea da, kontinentearen ondoan etzanda bezala tarte luze xamarra hartzen duena.
- ESTREPSIADES** Badakit, guk eta Periklesek utzi baikenuen zutitu ezinik. Baina, non dago Lazedemonia⁹?
- DIZIPULUA** Non dagoen? Hortxe daukazu. (*Seinalatuz.*)
- ESTREPSIADES** Bai gertu gugandik! Hobe zenukete gugandik ahal den guztia nola urrutiratu pentsatzea...
- DIZIPULUA** Ezin da.
- ESTREPSIADES** Ala Zeus! Nozituko diozue, orduan. (*SOKRATES agertzen da sabaitik garabia baten bidez zintzilikatuta dagoen saski baten barruan.*) Horra! Eta nor da gakotik zintzilik datorren gizon hori?
- DIZIPULUA** Bera da
- ESTREPSIADES** Nor bera?
- DIZIPULUA** Sokrates.
- ESTREPSIADES** Sokrates! Tira, dei iezaiozu ozen.
- DIZIPULUA** Deitu zerorrek, nik astirik ez dut eta. (*Etxean sartzen da.*)
- ESTREPSIADES** Sokrates, Sokratestxo!

⁹ Lazedemonia, edo Esparta, Atenasen etsaia zen.

- SOKRATES** Zergatik deitzen didazu, kreatura ilauna?
- ESTREPSIADES** Hasteko, esadazu, mesedez, zer egiten duzun.
- SOKRATES** Airean nabil eta eguzkia gainbegiraten dut.
- ESTREPSIADES** A, jainko-jainkosak gainbegiratzera igotzen zara saskira, azpitik gora gainbegiratzeko gai zarelako!
- SOKRATES** Ez nituzkeen inoiz zeruko fenomenoak argituko, ez banu nire adimena bertan behera utzi izan eta nire pentsamendu sotila bere antzeko airearekin nahastu izan ez banu. Lurrean egonik, behetik aztertu izan banitu goiko eskualdeak, ez nukeen inoiz ezer argituko. Eta hori da lurra pentsamenduaren substantzia beregana arrastatzen duelako. Gauza bera gertatzen zaie berroei ere.
- ESTREPSIADES** Zer diozu? Pentsamenduak berroetara arrastatzen duela substantzia? Tira, jaits zaitez niganaino, Sokratestxo, ikasi nahi ditudan gauzak irakats diezazkidazun.
- SOKRATES** (*Saskitik jaitsita.*) Zertara etorri zara ba?
- ESTREPSIADES** Hitzaldiak egiten ikasi nahi dut, interesen eta asmo txarreko hartzekodunen erruz, gabetuta eta arpilatuta ikusten dudalako neure burua: dena bahituta daukat.
- SOKRATES** Eta nolaz zorpetu zara ba konturatu gabe?
- ESTREPSIADES** Izugarri garesti den zaldien gaitz batek jota utzi nau. Baina, tira, irakatsiezadazu zure bi argudioetako bat, ezer ordaintzen ez duen hori. Eta edozein ordainsari eskatzen didazula ere, jainko-jainkosen izenean zin egingo dizut txintxo-txintxo ordainduko dizudala.
- SOKRATES** Zer zin egingo duzu jainko-jainkosen izenean? Hasteko, jainko-jainkosek gure artean ez dute ezer balio.
- ESTREPSIADES** Orduan, zeren izenean egiten duzue zin? Burdinazko txanpon batzuen izenean, Bizantzion bezala?
- SOKRATES** Argi jakin nahi duzu zer den zehazki jainkotasuna?
- ESTREPSIADES** Bai, Zeusen izenean, baldin Zeusek ezer balio balu.
- SOKRATES** Eta Hodeiekin elkarrizketa izan nahi zenuke, gure jainkosekin?
- ESTREPSIADES** Bai, bai.

- SOKRATES** Ba eser zaitez lastaira sakratuan . (*Lastaira xume bat seinalatzen du.*)
- ESTREPSIADES** Ados. Eseriko naiz.
- SOKRATES** Orain hartu koroa hau. (*Koroa bat ematen dio.*)
- ESTREPSIADES** Koroa zertarako? Gaixoa ni!, ez nazazue sakrifikatu Atamante bezala, Sokrates.
- SOKRATES** Ez; hau egiten diegu ikasten hasten diren guztiei.
- ESTREPSIADES** Eta zer irabazten dut nik?
- SOKRATES** Hitzaldiak ematen aditu bihurtuko zara, kriskitin bihurtuko zara, irinik finena. Ea, egon lasai eta geldi! (*Irin finez hautseztatzen du.*)
- ESTREPSIADES** Ala Zeus! Horretan ez didazu ziririk sartu: horrela hautsezaturik benetan bihurtuko naiz irin.
- SOKRATES** Agureak errespetuzko isiltasunean egon behar du eta otoitza entzun. Oi Errege subiranoa, ezin neurtuzko Aire, lurrari espazioan eusten diozuna, eta zu, Eter distiratsua, eta zuek, Hodeiak, trumoiaren eta tximistaren jainkosa agurgarriak, altxa zaitezte, oi andereak, agertu goietan hausnarketan ari den gizonari!
- (*Benetako kultu mistiko baten hastapena parodiatzen duten errituak egingo ditu: lastaira besaulkiaren ordeztu; irina, buztina eta zahiaren ordeztu.*)
- ESTREPSIADES** (*Kaparekin estaltzen den bitartean.*) Oraindik ez, oraindik ez, honekin tapatu arte, busti egingo naute eta. Ni bai baboa, ni: etxetik atera naiz kapela ere hartu gabe!
- SOKRATES** Beraz, o Hodei agurgarriak!, zatozte gizon honek ikus zaitzaten, nahiz elurrak astindutako Olinpoko tontor sakratuetan egon, nahiz Ninfekin koru sakratu bat osatzen ari zuen aita Ozeanoren lorategietan, nahiz urrezko txarroz ura ateratzen ari izan Niloren ahoetan, nahiz Meotis lakuan bizi, nahiz Mimanteko gailur elurtuan. Entzun iezadazue sakrifizioa onartuz eta erritu sakratuekin poztuz. (*Hodei-koruaren kantua entzuten hasten da, oraindik ikusi gabe. Aldi berean trumoiak entzuten dira*).
- KORUA** Hodei betierekoak, igo gaitezen, burrunba sakoneko gure aita Ozeanoagandik ikusgai izan gaitezen gure hezetan dirdaitsuan zehar estalitako mendi garaien gailurretaraino, urrutian ageri diren talaia begiratuz, fruituak eta ondo ureztatutako lur sakratua, ibai jainkotiarren mailu erritmikoa eta hots gorrez durundi egiten duen

itsasoa. Eterren begi nekaezinak bere izpi argitsuez distira egiten baitu. Ea, astin dezagun gure forma hilezkorretatik urrun lanbro euritsua, eta begira diezaiogun lurrari begiratu zabalez.

SOKRATES O, Hodei agurgarriok! Garbi dago nire deia entzun duzuela. (*ESTREPSIADES*.) Entzun duzu beren ahotsa eta jainkozko trumoiaren orro beldurgarria?

ESTREPSIADES Bai, eta gurtu egiten zaituztet, o txit gurgarriok!, eta puzkerka erantzungo diet trumoiei, euren aurrean izutu eta dardarka jartzen nautelako. Eta zuen baimenarekin, eta gabe ere bai, kaka egitera noa.

SOKRATES Utzi txantxak eta ez egin komedianta zuntzun horiek egiten dutena; egon geldirik eta isilik, jainkosa talde handi bat hurbiltzen ari da-eta kantari.

KORUA (*Oraindik ezin da ikusi.*) Euria dakarzuena dontzeilok, goazen Palasen lurralde zoragarriara, Zekrope herrialde desiragarriari begiratzera: gizon adoretu ugari eta erritu esanezinen leku sakratua, non Misterio Sakratuetan iniziatuak direnak biltzen dituen santutegia dagoen. Han zeruko jainko-jainkosei opariak eskaintzen zaizkie, sabai altuko tenpluak daude, estatuak, dohatsuen prozesio sakratuenak, sakrifizioak eta jainko-jainkosentzako jaiak urtaro guztietan koroazko apaindurekin, eta udaberria iristean Bromioren dohaina: Koru melodiatsuen lehia eta soinu apaleko txirulen musika.

ESTREPSIADES Zeusen izenean eskatzen dizut, Sokrates. Esan nor diren kantu hotsandiko hori abesten ari direnak. Ez dira inolako heroi-emeak, ezta?

SOKRATES Inolaz ere ez. Zeruko hodeiak dira, ezer egiten ez duen gizakiarentzako jainkosa handiak, pentsamendua, dialektika, adimena, asmakizun berrien adierazpena, itzulinguruak, eta entzuleria txunditu eta arrastoan izatea errazten digutenak.

ESTREPSIADES Orduan, horregatik izango da haiek entzutean nire arimak hegan egin duela, eta jada irrikan dago sotilki hitz egiteko eta atariko haizeari buruz fineziak esateko, epai bati epaitxo sotil batekin aurre egiteko eta argudio bati aurkako beste argudio batekin egiteko kontra. Beraz, ahal balitz, ikusi egin nahi nituzke argi eta garbi.

SOKRATES Begiratu ba, alde honetatik, Parnes mendi aldera, poliki-poliki jaisten ikusten dira eta.

ESTREPSIADES Ea..., non? Erakutsi.

SOKRATES Hortik (*Albo batera seinalatuz*). Talde handi bat dator, basoak eta ibarrak zeharkatuz, hortik, alde horretatik.

- ESTREPSIADES** (*Alde horretara begira.*) Zer? Non? Nik ez ditut ikusten.
- SOKRATES** Han, alboko sarreraren ondoan!
- ESTREPSIADES** Bai, orain bai, esaten duzun lekuan ikusten hasi naiz. (*Hodeien KORUA sartzen da, emakumeek irudikatuta.*)
- SOKRATES** Orain derrigor ikusi behar dituzu, non eta ez dituzun kalabazak adinako makarrak.
- ESTREPSIADES** Bai, ala Zeus. O agurgarriak! Dena betetzen dute.
- SOKRATES** Eta ez zenuen jakingo jainkosak direla, eta ez zenuen eurengan sinetsiko?
- ESTREPSIADES** Ez horixe, ala Zeus. Nik uste nuen lainoa zirela, ihintza eta lurruna.
- SOKRATES** Ala Zeus, ez al dakizu eurek elikatzen dituztela «lixtopasatu» asko, hala nola Turioseko igarleak, eguraldiari begira egoten diren medikuntza irakasleak, onizezko eraztunak daramatzaten alfer tximaluzeak. Eta ditiranboen koruak modulatzten dituztenak, airearen iruzurgileak..., ezer egiten ez duten izaki alfer horiei jaten ematen diete eurentzako olerkiak egiten dituztelako.
- ESTREPSIADES** Horregatik esaten dituzte honelakoak: «hodei hezeen oldar suntsitzaile, sigi-sagan dirdaitso dabilena», «Tifonen xerloak» «ehun burukoak», «Hauspo bortitzeko ekaitzak», eta baita ere «aireko izaki hezeak, airean kulunkatzen diren atzapar makurreko hegaztiak» eta «ihintzez betetako hodeien euri-jasak» modukoak, horren ordainetan irents baititzakete korrokoi-xerra oparo eta zaporetsuak, eta birigarro txorikiak.
- SOKRATES** Bai, horregatik. Eta ondo dago, ez?
- ESTREPSIADES** Ea, esadazu: benetan hodeiak badira, zer gertatu zaie, emakume hilkorak emateko? Izan ere, horko haiek (*Zerura seinalatzen du.*) ez dira horrelakoak.
- SOKRATES** Nolakoak dira ba?
- ESTREPSIADES** Ez dakit ondo, baina artilezko maluta harrotuen antza dute, eta ez emakumeena, ala Zeus! Ezta inolaz ere. Hemengo hauek, ordea, sudurra dute.
- SOKRATES** Ea, erantzun nire galderei.
- ESTREPSIADES** Bota nahi duzuna, di-da.

- SOKRATES** Inoiz, gora begiratzean, ikusi al duzu hodeirik zentauro, lehoinabar, otso edo zezenaren antza zuenik?
- ESTREPSIADES** Bai, ala Zeus. Eta?
- SOKRATES** Nahi duten guztia bihurtzen dira. Beraz, tximaluze bat ikusten badute, Xenofanesen semea bezalako astakirten iletsu horietako bat, bere grinaz trufatzeko, zentauro itxura hartzen dute.
- ESTREPSIADES** Eta altxor publikoaren lapur bat ikusten badute, Simon adibidez, zer egiten dute?
- SOKRATES** Bere izaera aldarrikatzeko, otso bihurtzen dira bat-batean.
- ESTREPSIADES** Jakina, horregatik atzo, Kleonimo ezkutu-jaurtilaria¹⁰ ikustean, hain tipo koldarra begiz jo orduko, orein bihurtu ziren.
- SOKRATES** Eta orain, Klistenes¹¹ ikusi dutenez, ikusten?, emakume bihurtu dira.
- ESTREPSIADES** (*Koruari.*) Ongi etorri, orduan, andreak! Eta orain, inoiz beste inorentzat egin duzuen moduan, erregina ahalguztidunok, igor iezadazue niri ere zuen ahotsa, zerua bera bezain izugarria.
- KORIFEOA** Osasuna, urtez zamatutako agurea, hitz artistikoen ehiztaria! Eta zuk (*Sokratesi.*), txikikeria sotilenen apaizak, azal iezaguzu zer nahi duzun. Izan ere, gaur egungo jakintsuetako bati berari ere ez genioke kasurik egingo zeruko gaietan, Prodikori eta zuri izan ezik: berari, bere jakituria eta adimenarengatik, eta zuri, kalean harroputz zabiltzalako, zeharka begiratzen duzulako, oinutsik ibiltzeagatik gauza desatsegin asko jasan behar dituzulako eta gure bizkar harrotzen zarelako.
- ESTREPSIADES** O Lurra! A zer ahotsa! Bai sakratu, agurgarri eta zoragarria!
- SOKRATES** Hauek dira benetan jainkosa bakarrak. Gainerako guztia parpaila da.
- ESTREPSIADES** Baina zuen ustez, ala Zeus... , tira, ala Lurra!, Zeus Olinpikoa, ez da jainkoa?
- SOKRATES** Zein Zeus? Ez esan txorakeriarik. Zeus ez da existitzen.
- ESTREPSIADES** Baina, zer diozu? Bada, norik eragiten du euria? Argitu kontu hau ezer baino lehen.

¹⁰ Borrokan ari zirela, azkarrago ihes egiteko ezkutua botatzen zutenek koldar fama lotsagarria hartzen zuten. Kleonimo halakoa iruditzen zitzaion Aristofanesi.

¹¹ Klistenes emagizon famako gizona zen. Aristofanesek askotan uzten zuen barregarri.

- SOKRATES** Horiek, noski! Eta pisu handiko frogekin erakutsiko dizut. Ea, ikusi al duzu zuk inoiz hodeirik gabeko euririk? Nolanahi ere, Zeusek zeru oskarbiarekin euria eragiterik izan behar luke, hodeirik ez dagoenean.
- ESTREPSIADES** Ala Apolo!, esan berri duzunarekin oinarri sendoa eman diozu kontu honi. Eta gauza da ni lehen sano-sano sinetsita nengoela Zeusek galbahe batean barrena egiten zuela txiza. Baina esadazu nork sortzen dituen trumoiak, ni beldurak ikaratzen nauten horiek.
- SOKRATES** Hauek sortzen dituzte trumoiak alde guztietatik bultzatzen dituztenean.
- ESTREPSIADES** Nola da hori? Azaldu, dena ulertzeko gai zaren horrek.
- SOKRATES** Urez bete-bete egiten direnean, derrigor mugitu beharra dute, urez beteta daudenez behera erakartzen direlako. Orduan, elkarren kontra talka egiten dute, eta oso astunak direnez, burrunba handiz lehertzen dira.
- ESTREPSIADES** Baina nork mugiarazten ditu? Ez da Zeus?
- SOKRATES** Ezta pentsatu ere; Haize-erauntsi etereoa da.
- ESTREPSIADES** Haize-erauntsia? Ez neukan ideiarik Zeus ez dela existitzen eta bere ordezt orain agintzen duena Haize-erauntsia dela¹². Baina oraindik ez didazu ezer azaldu burrundaraz eta trumoiak.
- SOKRATES** Ez al didazu entzun? Hodeiak, urez beteta egonik, elkarren kontra talka egiten dute eta burrundara ateratzen dute, oso trinkoak direlako.
- ESTREPSIADES** Ea, ea: eta hori nork sinetsi behar du?
- SOKRATES** Azalduko dizut adibide gisa zerori erabilia. Panateneetan, jada haragi-zopaz leporaino zaudenean, ez al zaizkizu tripak nahasten, eta halako batean ez al zaizkizu hasten tripan mugimenduak eta tripa soinuak?
- ESTREPSIADES** Bai, ala Apolo, eta berehala hasten da saltsa handia, eta nahasmena, eta ditxosozko zopak hotsa eta burrundara handia egiten du, trumoi bat bezalakoa, hasieran isil xamar, «parrat, parrat», gero ozenago «parraparrat», eta kaka egiten dudanean, trumoi bezalakoxea, «parraparraparrat», eurek egiten duten bezala.
- SOKRATES** Pentsa zein puzker ateratzen diren zurea bezalako sabel txikitik. Ba aire honetatik, infinitua izanik, nola ez da ba normala izango holako trumoi handiak egitea?

¹² Grezieraz, *Dinos* hitzak "haize-erauntsia" esan nahi du, baina baita kopa mota bat ere. Ondoren gertatuko denagatik, pentsa genezake Sokratesen etxean, ohikoa izaten zen Hermes jainkoaren ordezt, kopa bat daukatela atarian.

- ESTREPSIADES** Horregatik izango dira bi gauzen izenak, «trumoi» eta «puzker»¹³, antzekoak. Beste gauza bat: tximista, bere su distiratsu horrekin, nondik dator? Azal iezadazu, astintzen gaituen tximista, batzuk kiskali eta beste batzuk erreskaldatu eta bizirik uzten dituen, nondik dator? Garbi dago Zeusek zin faltsua egiten dutenei botatzen diela.
- SOKRATES** Zu, ergela, zaharkitua, Kronosen garaiko usaina daukazuna! Zin faltsua egiten dutenak kiskaltzen baditu, nolaz ez zituen erre Simon, Kleonimo eta Teoro? Eta horiek zin faltsuak egin dituztela garbi dago. Horren orde, Sunioko bere tenplua erre du, eta Atenaseko muinoa, eta arte handiak. Eta hori, zergatik? Ez dago dudarik artearen hostoak ez duela zin faltsurik egiten¹⁴.
- ESTREPSIADES** Ez dakit. Diozun horrek badu egia tankera. Tira, zer da ba zehazki tximista?
- SOKRATES** Haize lehor bat gora igo eta hodeietan harrapatuta geratzen denean, barrutik puzten ditu maskuri bat bezala, eta gero ezinbestean lehertu egiten ditu eta, dentsitateagatik, bortizki kanporatzen da, eta higiduraren igurtzia eta oldarragatik, bere burua kiskaltzen du.
- ESTREPSIADES** Ala Zeus, niri behin horixe bera gertatu zitzaidan Diaside jaietan. Ni urdail bat egosten ari nintzen nire etxe koentzako, baina, konturatu gabe, ez nuen zulatu. Orduan puztu eta puztu hasi zen eta gero, derrepente, lehertu egin zen, eta barruan zeukan kakez bete zitzaizkidan begiak eta aurpegia erre zitzaidan.
- KORIFEOA** Gugandik goiko jakinduria lortu nahi duzun hilkor hori! Bai zoriontsua izango zarela atenastarren artean, eta orobat greziar guztien artean, baldin eta memoria onekoa bazara, pentsamendu ernea baduzu, zure ariman indarrik bada, zutik egon eta oinez ibiltzean nekatzen ez bazara, hotzak gehiegi eragiten ez badizu eta gosaritarako irrika handiegirik ez baduzu, ardorik edaten ez baduzu, eta gimnasio eta tankerako txorakerietatik urruntzen bazara, eta, gizaki argi bati dagokion moduan, uste baduzu onen-onena dela garaitzea hizkuntza arma gisa erabilirik.
- ESTREPSIADES** Ba lasai. Badauzkat arima gogorra, ohean esna egoten den pentsamendua, eta gutxi behar duen sabela, otorduan aza pixka batekin aski dut eta. Honen gauza gutxi behar izanik, ingude gisa erabil nazakezu.
- SOKRATES** Beraz, hemendik aurrera ez duzu jainko-jainkosarik gureak besterik. Alegia: Kaosa, Hodeiak eta Hizkuntza. Hala da?

¹³ Grekeraz ere bi hitzok ez dute antzik (*bronté* eta *pardé*). Burla egin nahi die hitzen antzekotasunagatik egiten ziren argudiaketei.

¹⁴ Artearen hostoak erabiltzen ziren etorkizuna iragartzeko.

- ESTREPSIADES** Gainerako jainko-jainkosekin ez nuke hitzik ere egingo, ezta eurekin topatuta ere, eta ez dizkiet sakrifizioak opako, ez libaziorik isuriko, eta ez dut intsentsurik jarriko euren aldareetan.
- KORIFEOA** Esan bada, orduan, beldurrik gabe. Zer egin genezake zure alde? Gu errespetatu eta gurtuz gero, nahi duzuna lortuko duzu, aldi berean bizkor bazabiltza.
- ESTREPSIADES** Andreok, orduan huskeria hau eskatu nahi dizuet: greziar guztien artean, nerau izan nadila hitzaldiak ondoen egiten dituenahun estadioko aldeaz.
- KORIFEOA** Ba hori lortuko duzu gugandik. Eta hala, oraintxetik hasi eta etorkizunean, Asanbladan inork ez du aterako zuk bezainbeste mozio.
- ESTREPSIADES** Ez ditut mozio garrantzitsuak aurkeztu nahi; ez dut hori nahi, ez. Nik nahi dudan gauza bakarra da justizia nire alde bihurtzea eta nire hartzekodunei iskintxo egin ahal izatea.
- KORIFEOA** Orduan, nahi duzuna lortuko duzu, zure helburua ez baita lortzen zaila. Ea, jar zaitez beldurrik gabe gure ministroen eskuetan.
- ESTREPSIADES** Hala egingo dut, zuengan fidatuz, «coppa»z markatutako zaldien erruz eta lur jota naukan ezkontzagatik, premia larriak estutzen bainau. Beraz, hemendik aurrera, egin nahi didazuen guztia egin niri. Nire gorputz hau ematen dizuet eta prest nago kolpeak hartzeko, gosea eta egarria pasatzeko, krakaz estalita egoteko, ikaragarritzko hotza izateko, zahagiak egiteko larrutu nazaten; edozer egingo dut zorretatik libre geratzeko eta jendeak pentsa dezan ausarta naizela, hizkuntzalari trebea, bipila, kopetaduna, nazkagarria, gezur-asmatzailea, hitz bizkorrekoa, auzietan oso trebea, lege kode ibiltaria, kriskitina, azeria, zorrotza, larrua bezain malgua, hipokrita, morroi laztan-jarioa, iruzurtia, makilakadak merezi dituen pikarora, putakumea, morroi maltzurra, amorragarria, zazpi begiko gizona. Nirekin topo egiten dutenek gauza horiek deituko badizkidate, zuen ministroek egin diezadatela nahi duten guztia. Eta nahi badute, ala Demeter, bihurtu nazatela saltxitxa hausnarketariei jaten emateko.
- KORUA** Morroi honen izaera harroari ez zaio ausardiarik falta, edozertarako prest dago eta. (*ESTREPSIADES*.) Zaude ziur gugandik gauza hauek ikasten badituzu, hilkorren artean zerurainoko fama izango duzula.
- ESTREPSIADES** Zer gertatuko zait?
- KORUA** Gure ondoan egongo zara, eta gizaki guztiek inbidiatuko duten bizitza izango duzu betiko.
- ESTREPSIADES** Ikusiko al dut nik hori inoiz?

- KORIFEOA** Bai, noski. Eta zure atean beti jende asko izango duzu eserita, zurekin elkarrizketatzeko desiratzen, zuri gauzak galdetzeko eta talentu askoko auziez galdetzeko, zure gaztarentzako moduko kontuez. (*SOKRATESi.*) Zu ahalegindu agure honi irakasten eman nahi dizkiozun aurretiko irakaskuntzak. Astin iezaiozu burua eta probatu bere adimena.
- SOKRATES** (*ESTREPSIADESi.*) Tira, zu. Azal iezadazu nolakoa den zure izaera, nolakoa den jakinik, oinarri horren gainean ezar ahal diezazkizudan arma berriak.
- ESTREPSIADES** Nola? Ala jainkoak! Harresiak setiatzera bidali nahi nauzu?
- SOKRATES** Ez, zuri buruzko gauza batzuk jakin nahi ditut. Esate baterako, memoria ona daukazu.
- ESTREPSIADES** Bi modutakoa daukat, ala Zeus. Zerbait zor didatenean, oso memoria ona da. Baina, zer egingo diogu, ni banaiz zorduna, dena ahazten zait.
- SOKRATES** Ea. Ba al duzu hitzaldiak egiteko abilidadarik?
- ESTREPSIADES** Hitzaldiak egiteko ez. Iruzurrak egiteko, bai.
- SOKRATES** Orduan, nola ikasiko duzu?
- ESTREPSIADES** Ez kezkatu. Ondo egingo dut.
- SOKRATES** Ba erne ibili, nik zeruko gauzei buruzko irakaspén burutsu batzuk botatzen ditudanean, airean harrapatzeko.
- ESTREPSIADES** Nola, ordea? Jakintza hortz artean harrapatu behar dut, zakurra banintz bezala?
- SOKRATES** (*Bere bururako.*) Gizon hau ezjakina da eta astakirtena. (*Besteari.*) Agure, uste dut makilakada batzuk behar dituzula. Ea, zer egiten duzu norbaitek jotzen bazaitu?
- ESTREPSIADES** Kolpeak jaso eta gero, pixka batean zain egon eta lekukoak biltzen ditut. Gero beste tarte bat pasatzen uzten dut, eta auzia jartzen dut.
- SOKRATES** Tira, uztazu kapa hor.
- ESTREPSIADES** Gauza txarren bat egin al dut? Astindu egingo nauzue?
- SOKRATES** Ez, baina hor biluzik sartzea da ohitura.

- ESTREPSIADES** Ez daukat-eta miaketak egiteko asmorik!¹⁵
- SOKRATES** Uztazu hor! Zer erokeria ari zara esaten?
- ESTREPSIADES** (*Kapa eta oinetakoak erantzita.*) Esadazu. Ni erne banago eta gogoz ikasten badut, zure zein ikasleren antza izatera iritsiko naiz?
- SOKRATES** Kerefonen ezaugarri berdin-berdinak izango dituzu.
- ESTREPSIADES** Ai, gaixoa ni. Erdi-hila egongo naiz.
- SOKRATES** Utziko al diozu txorakeriak esateari, eta etorriko al zara nirekin hona barrura behingoagatik?
- ESTREPSIADES** Ba jar iezadazu lehenik ezti-pastel bat eskuetan Trofonioren leizera¹⁶ jaisteko egiten den bezala, horra behera jaisteko beldurrak nago eta.
- SOKRATES** Ale! Zergatik geratzen zara ate ondoan miatzen? (*Biak sartzen dira hausnartokian.*)
- KORUA** Sar zaitetz ondo, zure ausardiagatik. Zoriona lagun izan dakiola gizaki honi, honezkero zaharra izanik, bere izaera ideia berriez blaitu eta jakinduriari eskaini baitio.
- KORIFEOA** Ikusleak, argi eta garbi esango dizuet egia osoa, aspaldidanik sustengatu nauen Dionisoren izenean! Ez nadila ni garaile izan, eta ez nazatela jakintsutzat hartu, ez bada egia, zuek ikusle argiak zaretela eta hau dela nire komediarik onena uste dudalako, egoki iritzi badiot zuek izan zaitetzten komedia hau dastatzen lehenak, gehien landu dudan antzerkia izanik. Baina atzera egin behar izan nuen gizon oiesek garaituta, nik hori merezi gabe. Horregatik aurpegiratzen dizuet zuei, ikasioi, zuengatik hartu bainuen nik lan hura guztia. Baina hala ere, ez zaituztet, nahita behintzat, inoiz traizionatuko. Izan ere, hemen bertan diren gizon batzuek, atseginez esaten dut, oso ongi hitz egin zuten nire bi umeez, barrenkoiaz eta marikoiaz, eta nik, –artean ezkongabea nintzenez, eta debekatuta nuenez umeak izatea–, umea erakutsi eta beste esku batzuetan utzi nuen¹⁷. Zuek eskuzabaltasunez hazi zenuten, eta harrezkero badakit zuen harrera aldekoa izango dela. Komedia hau, beraz, Elektra haren antzera, ikusle ikasiak nonbait topatzeko asmoz etorri da, ikusten badu ezagutuko baitu bere anaiaren xerloa. Umila da. Hasteko, ez du ekarri soinekotik zintzilik muturra gorria duen zakil tankerako larru lodirik, haurrak dibertitzeko. Ez die iseka egin burusoilei, eta ez du mozkor-dantza

¹⁵ Baten bat lapurretaz salatzen bazuten, etxe hartan miaketa egitera sartzen zirenak biluzik sartzen ziren. Hartara miatzaileek ezin zuten lapur-ustekoaren etxean ezer sartu, berari errua egozteko.

¹⁶ Trofonioren leizera jaisten ziren orakuluari galderak egitera. Ezti-pastela eraman behar izaten zuten sugeak distraitzeko.

¹⁷ Neska ezkongabeek debekatuta zeukaten haurrak izatea, eta, izanez gero, basoan uzten zituzten hiltzeko. Ohitura hori aipatzen da hemen: Aristofanesez bere burua neska gaztetzat aurkezten du, eta izan ezin dituen umeak bere obrak dira.

dantzatu. Ez dago pertsonaia xaharrik edozein aitzakiarekin eskura duen edonor makilatzen duenik, txiste txarrak disimulatzeko. Pieza hau ez da agertokira bota zuziekin, ezta «lagundu, lagundu!» oihukatuz ere. Aitzitik, bere buruagan eta bere bertsoetan badu konfiantza. Eta ni, bai, ni, tankera bereko poeta izanik, ez naiz harrokerietan ibiltzen eta ez naiz zuek engainatzen saiatzen agertokira gauza berak bi eta hiru aldiz ekarriz. Aitzitik, neure burmuinak estutzen ditut, aldiro elkarren antzik ez duten berritasun burutsuak aurkezteko.

Nik, Kleon sabelean jo nuen oso ahaltsua zenean, baina lurrera erori zenean ez nion gainera jauzi egin. Beste horiek, ordea, Hiperbolok utzi zienean mendean har zezaten, behin eta berriz astindu zuten gizajo hori eta baita bere ama ere. Lehen-lehenik, Eupolisek arrastaka eraman zuen bere “Marikas”, nire “Zaldunak”¹⁸ lana lardaskatuta, eta bera bezain erdipurdikoa atera zitzaion. Hori aski ez, eta atso mozkor bat erantsi zion, Frinikok aspaldi sortutako pertsonaia bat, itsas munstroak irentsi nahi zuen hura.

Aurrerago, Hermipok ere idatzi zuen Hiperbolori buruz, eta geroztik mundu guztiak jotzen du Hiperboloren kontra, nik aingirekin egindako konparazioak imitatuz. Beraz, horien obrekin barre egiten duenak, ez dezala atseginik har nireekin. Baina nirekin eta nire aurkipenekin gozatzen baduzue, etorkizunean jende zuhurtzat izango zaituztete.

KORUA Zeru goietan agintzen duten jainkoen artean, Zeus jaun handiari deitzen diot lehenik nire dantzara, eta Hiruhortzaren Zaintzaileari, lurra eta itsasoa ikararazten dituenari. Eta fama handiko Eter gure aita agurgarriari, bizidun guztiak elikatzen dituenari. Eta Aurigari, jainko-jainkosen eta hilkorren artean lurraren zabaldua bere izpi distiratsuez besarkatzen duen jainko boteretsuari.

KORIFEOA Ikusle argiak, adi hemen! Gurekin bidegabeak izan zaretelako, aurrez aurre kritikatzten zaituztegu. Jainko-jainkosa guztien artean gu gara zuen hiriarri onura gehien egiten diogunak, eta, hala ere, guri bakarrik ez diguzue sakrifiziorik eta libaziorik eskaintzen, nahiz eta beti zuek zaintzen aritzen garen.

Esaterako, inongo zentzurik ez duen espedizio militar bat egiten bada, orduan trumoa edo euria egingo dugu. Gero, jainkoek gorrotaturiko zurratzailea, Paflagon, jeneral aukeratzera zindoaztenean, guk bekainak okertu eta burrunba handia egin genuen: tximistarekin batera, trumoi batek airea urratu zuen, ilargia bere bidetik atera zen, eta eguzkiak, metxa barrurantz presaka itzuliz, esaten zuen ez zintuztela argituko Kleon jenerala bazen.

Eta, hala ere, tipo hori aukeratu zenuten. Erabaki txarrak hiri honetako gauza omen dira, baina egiten dituzuen okerrak jainko-jainkosek onura bihurtzen dizkizuetela ere esaten da. Erraz azalduko dizuegu hori ere komeni zaizuela: Kleon eroskeria eta lapurretagatik erruduntzat jo eta

¹⁸ *Marikas* Eupolisen antzerki obra baten izena da. “Lizunkoia, libertinoa” esan nahi du. Aristofanesena da *Zaldunak*.

lepoa zepoaz bihurritzen badiozue, nahiz eta oker jokatu duzuen, gauzak lehengora itzuliko dira, eta hiriarentzat oso onuragarriak izango dira.

KORUA Nire ondora, zu, Febo, Deloseko jauna, Zinton bizi zarena, gailur garaiko harkaitzean. Eta zu, Efesoko etxe urrez aberatsa denean bizi zaren zorioneko jainkosa, lidiatarren alabek kartsuki gurtzen zaituzten tokian. Eta gure etxeko jainkosa, hiriaren zaintzaile, Atena babeslea. Eta Parnaso mendiaren jabea, Delfoseko bakanteen artean zuziri distiratsuz nabarmendutako Dioniso, festazalea.

KORIFEOA Honantz abiatzeko prest geundenean, ilargiak gurekin topo egin du eta agindu digu lehenik Atenastarrak eta haien aliatuak agurtzeko; gero, esan digu haserre dagoela, tratu txarrak jasan dituelako, nahiz eta berak zuei guztioi mesede egiten dizuen, ez hitzez, baina bai modu nabarmenean.

Lehenik eta behin, hilean drakma bat baino gehiago aurrezten duzue berari esker zuzietan, eta horregatik esaten duzue, gaeuz irteten zaretenean: «Mutil, ez erosi zuzirik, Selenek behar adina argitzen du-eta». Beste gauza batzuetan ere mesede egiten dizuela baieztatzen du, baina zuek ez daramazue batere ondo egunen kontua, baizik eta goitik behera aztoratzen dituzue, eta, dioenez, jainko-jainkosek behin eta berriz mehatxatzen dute bazkari bat zapuzten zaienean, edo etxera itzuli behar dutenean egunen kontaktaren arabera zegokien festan parte hartu gabe.

Bestalde, halaber, sakrifizioak eskaini behar dituzunean, torturak egiten dituzue eta epaitzera esertzen zarete; eta jainko-jainkosek barau egiten dugunean Memnon edo Sarpedonen doluagatik, zuek libazioak egiten dituzue eta barrez aritzen zarete. Horregatik, zozketa bidez Hiperbolo «oroitzaile sakratua» aukeratu zutenean, guk jainko-jainkosok koroa kendu genion, horrela ikas zezan bizitzako egunak ilargiaren arabera zenbatu behar direla. (*SOKRATES hausnartegitik irteten da*).

SOKRATES Ala Hatsa! Ala Hutsa! Ala Airea! Ez dut inoiz ikusi hau bezain gizon zuntzun, baliabiderik gabeko, ergel ahazkorrik. Ideiarik xumeenak ikasi nahirik ere, ikasi aurretik ahantzi ditu. Haatik, hona kanpora deituko dut egun argiz. (*Hausnartokirantz deika*.) Non da Estrepsiades? Aterako al zara ohea ekarrita?

ESTREPSIADES (*Atera egiten da ohe bat dakarrela*.) Kukusoek ez didate kanpora ateratzen uzten.

SOKRATES Uztazu behingoz lurrean eta egon erne.

ESTREPSIADES Listo.

SOKRATES Ea. Inoiz irakatsi ez zaizun zein gairi buruz ikasi nahi zenuke lehenik? Esan, neurriak, hitzak ala erritmoak?

- ESTREPSIADES** Zalantzarik gabe, neurriak. Lehengo egunean irin-saltzaile batek lakari-erdi¹⁹ xixkatu zidan.
- SOKRATES** Ez naiz hori galdezka ari, baizik zein neurri gustatzen zaizun gehiago, hiru-oinduna ala lau-oinduna.
- ESTREPSIADES** Niretzat ez dago garrantzitsuagorik “laukaria²⁰” baino.
- SOKRATES** Babokeriak esaten ari zara, gizona.
- ESTREPSIADES** Egin apustu: lakaria tetrametroa izan, ezetz.
- SOKRATES** Zoaz pikutara! Bai astoa zarela eta bai kaskagogorra! Hala ere, baliteke erritmoei buruzko zerbait ikastea.
- ESTREPSIADES** Zertarako behar ditut erritmoak irin kontuetan?
- SOKRATES** Hasteko, bilkuretan gizon fina izateko, eta bereizteko zein erritmo mota den enoplia, eta zein daktiliko edo hatzekoa.
- ESTREPSIADES** Hatzekoa? Ala Zeus, hori badakit.
- SOKRATES** Esan ba.
- ESTREPSIADES** Txikia nintzenean, hau zen (*Hatz luzea altxatzen du, keinu zakarra eginez.*)
- SOKRATES** Kaikua zara eta kirtena.
- ESTREPSIADES** Ez, ez. Kontua da gauza horiei buruz ez dudala ezer ikasi nahi.
- SOKRATES** Zeri buruz, orduan?
- ESTREPSIADES** Beste hura, bestea. Argudiorik okerrena.
- SOKRATES** Baina horren aurretik gauza asko ikasi behar duzu. Adibidez, zein animalia diren berez arrak.
- ESTREPSIADES** Zein animalia diren arrak ondo dakit, oker ez banago oilarra, katarra, antzarra²¹...

¹⁹ Jatorrizkoan, bi “kenize” lapurtu zizkion. Kenize bat laboreen neurri bat zen; gutxi gorabehera, litro bat. Eta lakari laurdena baino pixka bat gehixeago.

²⁰ Jatorrizkoan, Estrepsiadesen erantzunetik ulertzen da lau kenize direla bere neurri gogokoena. Horregatik jarri dugu “laukari” hitz asmatua.

²¹ Hemendik aurrerako nahasteak grezieraren deklinabidegatik sortuak dira. Euskaraz, horrelakorik egin ezin denez, tankerako jokoak egin ditugu. Euskaltzaindiak araututako *antzara* eta *pitxerra* erabili beharrean, “antzarra” eta “pitxarra” erabili dira jokoak egin ahal izateko.

SOKRATES Eta emeak?

ESTREPSIADES Oiloa, katemea, antzarra...

SOKRATES Ikusten zer gertatzen den? Arrari antzarra esan diozu, eta emeari ere berdin.

ESTREPSIADES Nola esan dut, ba?

SOKRATES Nola? Antzarra eta antzarra.

ESTREPSIADES Egia, ala Poseidon. Eta nola esan behar diet?

SOKRATES Arrari, antzarra. Eta emeari antzemea.

ESTREPSIADES Antzemea? Oso ondo, ala Airea! Horregatik bakarrik, pitxar oso bat goraino beteko dizut ardoz.

SOKRATES Horra, berriz. Hor daukazu beste adibide bat. "Pitxarra" esaten diozu, maskulinoan, baina berez femeninoan behar luke.

ESTREPSIADES Zer diozu? "Pitxarra" maskulinoan esaten dudala?

SOKRATES Bai, jauna. Kleonimo bezala.

ESTREPSIADES Nola da hori? Azal iezadazu.

SOKRATES Zuretzat berdin dira "pitxar" eta Kleonimo.

ESTREPSIADES Baina, gizona, Kleonimok inoiz ez du izan pitxarrik; ardoa zahagietan gordetzen du. Tira, aurrerantzean nola deitu behar diot?

SOKRATES Nola? "Pitxemea", Sostrata bezala.

ESTREPSIADES "Pitxemea", femeninoan?

SOKRATES Horixe eta bera.

ESTREPSIADES Eta lehen esan dudanak beste honela behar zuen: "Kleonimak inoiz ez du izan pitxemerik", ezta?

SOKRATES Gainera, oraindik ikasteke daukazu zein pertsona-izen diren gizonezkoenak eta zein emakumezkoenak.

ESTREPSIADES Emakumezkoenak ederki dakizkit.

- SOKRATES** Esan ba.
- ESTREPSIADES** Lisila, Filma, Klitagora, Demetria.
- SOKRATES** Eta gizonezkoenak?
- ESTREPSIADES** Pila daude: Filoxeno, Melesias, Aminias...
- SOKRATES** Baina, ergela, horiek ez dira gizonezkoenak.
- ESTREPSIADES** Zuentzat horiek ez dira gizonezkoenak?
- SOKRATES** Inolaz ere ez. Filoxenorekin topo egingo bazenu, nola deituko zenioke?
- ESTREPSIADES** Nola? Hola: "E, Filo!"
- SOKRATES** Ikusten? Emakume izena deitzen diozu, "Filo".
- ESTREPSIADES** Ba hori ondo dago, soldadutzarik ez du egin eta. Baina, zergatik ikasi behar dut mundu guztiak jada badakiena?
- SOKRATES** Uztazu, ala Zeus! (*Ohea seinalatuz.*) Orain etzan hemen eta...
- ESTREPSIADES** Zer egin behar dut?
- SOKRATES** Asma ezazu zerbait. Zure gauzetatik atera dezakezu.
- ESTREPSIADES** Ez, mesedez. Hor, ez. Beste erremediorik ez badago, utzidazu gauzak asmatzen lurrean etzanda.
- SOKRATES** Ez dago beste inola egiterik.
- ESTREPSIADES** (*Ohean etzanik.*) Gaixoa ni! Larrutik ordainduko diet gaur arkakusoei! (*SOKRATES bere etxean sartzen da.*)
- KORUA** Orain pentsatu eta zorrotasunez aztertu. (*Koruak pentsatzeari buruz esaten dituen gauza guztiak egin egiten ditu Estrepsiadesek, arkakusoetatik ihesi.*) Bihurrikatu aukera guztiak, tolestatu zeure baitara. Eta irtenbiderik aurkitzen ez duzunean, bizkor!, egin jauzi beste proiektu batera, arimarako atsegina litzatekeen lo gozoa uxatuz.
- ESTREPSIADES** Ai, ai, ai!
- KORUA** Zer gertatzen da? Zer daukazu?
- ESTREPSIADES** Hiltzen ari naiz, gaixoa ni! Ohetik isil-isilik ateratzen ari dira kokoak niri hozka egitera. Saihetsak jaten dizkidate, odola xurgatzen didate, potroak

erauzten dizkirate, ipurdia zulokatzen didate... Hil egingo naute azkenean!

KORUA Ez gaizki hartu. Utzitzazu deitore horiek.

ESTREPSIADES Uzteko? Nola? Nire ondasun guztiak galdu ditut, larruazala galdu dut, zainetako odola galdu dut, oinetakoak galdu zaizkit, eta, hori gutxi ez eta, hemen harpa jotzen aritzeagatik, ia-ia galdu naiz nerau. (*SOKRATES dator.*)

BIGARREN EKITALDIA

SOKRATES E, zu! Zertan ari zara? Ez zara hausnartzen ari?

ESTREPSIADES Bai, ala Poseidon.

SOKRATES Eta zer hausnartu duzu?

ESTREPSIADES Arkakuso hauek nire arrastorik utziko ote duten.

SOKRATES Fundi zaitetz! (*Etxean sartzen da berriro.*)

ESTREPSIADES Inoxente hori, fundituta nago honezkero!

KORIFEOA Ez etsi. Orain burua estali behar duzu pentsatzeko, ihesbide bat asmatu behar duzu-eta, iruzurren bat...

ESTREPSIADES Gaixoa ni! Nork estaliko ninduke gezurti-larru batez, itzuri egin ahal izateko?

SOKRATES (*Etxetik aterata.*) Ea zertan ari den hori. Aizu, lo zaude?

ESTREPSIADES Ez horixe, ala Apolo. Ez, ez.

SOKRATES Baduzu zerbait?

ESTREPSIADES Ala Zeus, ezer ez.

SOKRATES Ezertxo ere ez?

ESTREPSIADES Ezer ez, nire esku eskuinez eusten ari naizen hanka-tarteko txortena besterik.

SOKRATES Zoaz burua estali eta zerbait hausnartzera azkar-azkar.

ESTREPSIADES Zeri buruz? Esan zuk, Sokrates.

SOKRATES Zerorrek esan zeri buruz hausnartu nahi zenukeen lehenbizi.

ESTREPSIADES Mila bider entzun duzu jada zer nahi dudan. Interesen kontu hori, ez dizkiodala inori ordaindu nahi.

- SOKRATES** Ederki. Ba estal ezazu zure burua, birrindu zure pentsamendua atal txikitan, eta azter ezazu atalez atal, gauzak egoki analizatuz eta ikertuz.
- ESTREPSIADES** Gaixoa ni!
- SOKRATES** Ez kezkatu, eta pentsamenduetakoren batekin aurrera egiterik ez badaukazu, uztazu, eta geroago emaiozu beste buelta bat buruan eta berriro aztertu.
- ESTREPSIADES** (*Pixka batez ohetik aterata.*) Sokratestxo bihotzekoa!
- SOKRATES** Zer dugu, agure?
- ESTREPSIADES** Interesei iruzur egiteko ideia bat daukat.
- SOKRATES** Ea ba.
- ESTREPSIADES** Tira, zera...
- SOKRATES** Zer?
- ESTREPSIADES** Nik Tesaliako sorgin bat erosiko banu, eta gauez ilargia lapurtuko balu, eta kutxa borobil batean gordeko balu ispiluak gordetzen diren bezala, eta adi-adi zainduko balu...
- SOKRATES** Zer irabaziko zenuke zuk horrekin?
- ESTREPSIADES** Zer? Ilargia ez balitz gehiago aterako inon, nik ez nituzke interesak ordaindu beharko.
- SOKRATES** Zer ba?
- ESTREPSIADES** Diruaren interesen epe-mugak hilekoak izaten direlako.
- SOKRATES** Ondo asmatua. Orain beste gai bat jarriko dizut azerikeria eskatzen duena. Jar dezagun zure kontra bost talentuko epai bat eman dutela. Nola baliogabetuko zenuke?
- ESTREPSIADES** (*Pentsatuz.*) Nola? Nola ez dakit. Aztertu egin beharko nuke.
- SOKRATES** Ez dadila zure pentsamendua beti zeure buruaren jiran ibili. Utzi ideiei hegan egitean airean, lokarri batez hanka lotutako erlastar batek bezala.
- ESTREPSIADES** Topatu dut amarru maltzur bat epaia baliogabetzeko. Seguru nago zu ere ados izango zarela.

- SOKRATES** Zein?
- ESTREPSIADES** Ikusiko zenuen ukendu-dendetan saltzen duten harri polit hori, gardena dena eta sua pizteko balio duen hori, ez?
- SOKRATES** Kristala esan nahi duzu?
- ESTREPSIADES** Horixe bera. Nik horrelako bat hartuko banu idazkaria argizarizko oholtxoan epaia idazten ari denean, eta, urruti xamar jarririk, eguzkiak jotzen duen aldetik, epaiaren hitz guztiak urtuko banitu?
- SOKRATES** Ala Graziak, oso artetsua, bai horixe!
- ESTREPSIADES** Ai, bai pozik nagoela, derrepente nire bost talentuen auzia ezabatu dudalako!
- SOKRATES** Beste bat botako dizut! Ea azkar asmatzen duzun!
- ESTREPSIADES** Bota!
- SOKRATES** Nola aurre egingo zenioke zure kontrako salaketa bati, auzia galtzeko zorian egonik lekukorik ez bazenu.
- ESTREPSIADES** Simple eta erraz.
- SOKRATES** Esan ba.
- ESTREPSIADES** Horra: nirearen aurreko auzia ebazten ariko liratekeenean, nire auzia deitu aurretik, korrika joan eta neure burua urkatuta.
- SOKRATES** Horiek txorakeriak, gizona!
- ESTREPSIADES** Ezta pentsatu ere! Izan ere, inork ezin nau auzipetu hilik banago.
- SOKRATES** Zentzugabekeriak esaten ari zara. Zoaz hemendik. Ez dizut gehiago irakatsiko.
- ESTREPSIADES** Zergatik? Sokrates, mesedez, jainkoen izenean!
- SOKRATES** Ikasitakoa berehala ahazten zaizu-eta! Ea, zer da gaur irakatsi dizugun lehenengo gauza? Esan!
- ESTREPSIADES** Ea, ea... Zer zen lehenengo gauza, zer zen... Nola zuen izena ardoa eramateko traste hark? Gaixo ni, nola zen?
- SOKRATES** Zoaz antzarrak ferratzera! Ala fundi, dena ahazten duzun agure ezgauza!

- ESTREPSIADES** Ai, ai...Zer egingo dut orain, zorigaiztoko honek? Hizkuntza erabiltzen ikasten ez badut, nire galbidea izango da. Zuek, Hodeiok, aholka iezadazue gauza onen bat.
- KORIFEOA** Gure aholkua, agurea, zera da: seme koskorturik baduzu, bidal ezazu hura zure ordezkari ikastera.
- ESTREPSIADES** Badut seme bat, zaldun peto-pettoa, baina ez badu ikastera etorri nahi, zer egingo diot nik?
- KORIFEOA** Eta zuk onartu egiten diozu?
- ESTREPSIADES** Jakina, indartsua eta sendoa delako, eta, gainera, Zesiraren tankera harroko emakume-familia batetik datorrelako. Hala ere, banao bere bila, eta ezetz esaten badu, nire etxetik botako dut bai ala bai. (*Sokratesi.*) Sarzaitetz eta egon pixka batean nire zain.
- KORUA** (*ESTREPSIADES bere etxean sartzen den bitartean.*) Ikusten al duzu, jainko-jainkosa guztien artean, soilik guri esker lortuko duzula berehala etekin pila? Agure hau agintzen diozun edozer egiteko prest dago. (*Sokratesi, bera hausnartokian sartzen den bitartean.*) Eta zuk, gizona burutik egin dagoela eta asaldatuta dagoela jakinik, ahal duzun guztia zurrupatuko diozu berehala, tankera honetako gauzek espero ez diren ondorioak izaten dituzte eta. (*Etxetik ateratzen dira ESTREPSIADES eta FIDIPIDES.*)
- ESTREPSIADES** Ala Lanbroa! Ez zara etxe honetan gehiago geratuko! Zoaz osaba Megaklesenera, eta jan hango zutabeak!
- FIDIPIDES** Aita, zer gertatzen zaizu, gizona? Ez zaude zure onean, ala Olinpoko Zeus!
- ESTREPSIADES** Ikusten? Ikusten? Olinpoko Zeus! Hori da Zeusengan sinesteko seta, zure adinean!
- FIDIPIDES** Eta zergatik egiten duzu barre, jakin baliteke?
- ESTREPSIADES** Konturatzen naizelako umemoko bat zarela eta zure ideiak atzerakoiak direla. Haatik, zatoz hona gauza gehiago ikastera, azalduko baitizut gauza bat gizon bihurtuko zaituena ikasten duzunean. Baina ez inori esan!
- FIDIPIDES** (*Aitarengana hurbiltzen da.*) Hemen nago. Zer da?
- ESTREPSIADES** Orain gutxi Zeusen izenean zin egin duzu.
- FIDIPIDES** Bai.
- ESTREPSIADES** Ikusten zer gauza ona den ikastea? Fidipides, Zeus ez da existitzen.

- FIDIPIDES** Orduan, nor dago?
- ESTREPSIADES** Haize-erauntsia izenekoak agintzen du, Zeus kanpora egotzita.
- FIDIPIDES** Baina, baina... zer txorakeria ari zara esaten?
- ESTREPSIADES** Ziur egon hala dela.
- FIDIPIDES** Nork esan du?
- ESTREPSIADES** Sokrates Melosekoak²² eta Kerefonek, arkakusoen arrastoak ondo ezagutzen dituenak.
- FIDIPIDES** Eta zu seko jota zaude, eta horregatik egiten diezu kasu gizon erretxinei.
- ESTREPSIADES** Egon isilik eta ez iraindu gizon zorrotz eta zuhur horiek. Aurrezteagatik, ez dute inoiz ilea mozten, eta ez dira bainu-etxera joaten garbitzera eta gorputza oliatzera. Zuk, berriz, nire ondasunak hilda banengo bezala alferrik xahutzen dituzu bainuetan²³. Tira, zoaz azkar eta ikasi zuk nire orde.
- FIDIPIDES** Baina ezer onik ikasterik ba al dago gizon horiengandik?
- ESTREPSIADES** Benetan? Gizateriak daukan jakituria osoa. Gainera konturatuko zara zein ezjakin eta baboa zaren. Ale, egon hemen pixka batean nire zain. (*Bere etxean sartzen da.*)
- FIDIPIDES** Ai, ene! Zer egingo dut aitari burutik egin bazaio? Auzitegira eramango dut ezgaitzat jo dezaten, ala beren zorotasuna adieraziko diet hilkutxa egileei? (*ESTREPSIADES etxetik ateratzen da bi antzara dakartzan esklabo batekin.*)
- ESTREPSIADES** Ea, zu. Nola deitzen diozu honi? Esan.
- FIDIPIDES** Antzarra.
- ESTREPSIADES** Ederki. Eta emea den beste honi, nola?
- FIDIPIDES** Antzarra.
- ESTREPSIADES** Biei berdin? Barregarri zabilta. Ez diezu gehiago horrela esan behar. Arrari antzarra esan, baina emeari "antzemea" esan behar diozu.

²² Sokrates atenastarra zen. *Melosekoa* deitzen dio atea dela adierazteko, garai hartan ospetsua zelako Meloseko Diagorasen ateismoa.

²³ Hildakoak bainatu egiten zirelako dio hori.

- FIDIPIDES** Antzemea? Horiek al dira hor barruan, Lurraren semeen etxean ikasten dituzun gauza burutsuak?
- ESTREPSIADES** Eta beste asko ere bai. Baina bat ikasi orduko, ahaztu egiten zait, urte asko dauzkadalako.
- FIDIPIDES** Eta urte asko dauzkazulako galdu duzu kapa?
- ESTREPSIADES** Ez dut galdu: gogoetak egiteko erabili dut.
- FIDIPIDES** Eta zertarako erabili dituzu oinetakoak, burtzoro horrek?
- ESTREPSIADES** Periklesek bezala, behar zenean²⁴ erabili ditut. Baina, ale, goazen. (*Hausnartokira abiatzen dira.*) Orain, behingoagatik, jokatu ohikoaren kontra eta egin kasu aitari. Gogoan daukat nik ere, behin, zu sei bat urteko mutikotxo zezel bat zinenean, kasu egin nizula eta epaimahaikide gisa irabazi nuen lehen oboloarekin jostailuzko gurditxo bat erosi nizula Diasia jaietan.
- FIDIPIDES** Ikusiko duzu denborak aurrera egin ahala, nola damutuko zaizun. (*Badoa aitarekin hausnartokira.*)
- ESTREPSIADES** Bai ondo kasu egin didazula! E, entzun Sokrates! Zatoz hona! (*SOKRATES irteten da.*) Hemen dakart nire semea. Konbentzitu dut, bere gogoz kontra.
- SOKRATES** Oraindik mukizua da, eta ez dago antzaturik hemengo soka eta zintzilikarioetan.
- FIDIPIDES** Zuk bai zirpil antza izan zintzilikatuko bazintuzte!
- ESTREPSIADES** Ez ote zara pikutara joango? Nolaz iraintzen duzu zure irakaslea?
- SOKRATES** Hara: “zintzilikatuko”. Hori ahoskatzeko modu landugabea, ahoa zabalik! Nola ikasiko du honek auzitegietan zigor batetik libratzen, zitazioak egiten, edo defentsak egiten ahotsa hanpatuta? Eta hori Hiperbolok talentu batengatik ikasi zituela.
- ESTREPSIADES** Ez kezkatu. Irakatsiozu. Jaiotzez argia da. Haur txiki-txikia zela, buztinezko etxetxoak egiten zituen, urontzitxoak zizelkatzen zituen, pikondo egurrez gurditxoak egiten zituen, eta igelak egiten zituen granada-azalarekin, ez dakizu zein ondo. Saia zaitez bi argudioak ikas ditzan, Bidezkoa, edonolakoa dela ere, eta Bidegabea, auzi bidegabeak defendituz argudio bidezkoa porrokatzen duena. Tira, eta biak ikasi ezin baditu, Bidegabea ikas dezala behintzat, nola edo hala.

²⁴ Periklesek Pistoanakte erregea sobornatu zuen espartarrak erretira zitezen Eubeako kanpainan. Sobornoaz galdetu ziotenean, azalpenik eman nahi ez zuelako, Periklesek esan zuen beharrezko zen gauzetan erabili zuela diru hori.

- SOKRATES** Berak ikas dezala zuzenean argudioetatik. Ni banoa.
- ESTREPSIADES** (*SOKRATES badoan bitartean.*) Gogoan izan: edozein demanda zuzenen kontra egiten ikas dezala.
- (*ARGUDIO BIDEZKOA hausnartokitik ateratzen da. Gizon zahar itxuraz ageri da, antzinako janzkerek. ARGUDIO BIDEGABEA gazteagoa da, eta neurri batean FIDIPIDESen antzeko gustuak dauzkana.*)
- ARGUDIO BIDEZKOA** (*Orandik barruan dagoen ARGUDIO BIDEGABEAri.*) Zatoz hona eta ikusleek ikus zaitzatela, nahiz eta ausardia soberan daukazun.
- ARGUDIO BIDEGABEA** (*Agertzen ari den bitartean.*) Nahi duzun lekura joango naiz, jendaurrean hizketan beti birrinduko zaitut-eta.
- ARGUDIO BIDEZKOA** Zuk birrindu ni? Nor zara ba zu?
- ARGUDIO BIDEGABEA** Argudio bat.
- ARGUDIO BIDEZKOA** Bai, baina bidegabea.
- ARGUDIO BIDEGABEA** Baina irabazi egingo dizut, ni baino hobea zarela esanik harro-harro zabiltzan horri.
- ARGUDIO BIDEZKOA** Zein amarru erabilia?
- ARGUDIO BIDEGABEA** Esakune berriak asmatuta.
- ARGUDIO BIDEZKOA** Bai, hori da orain boladan dagoena, memelo hauei esker (*Ikusleak seinalatuz.*)
- ARGUDIO BIDEGABEA** Ez dira memeloak. Hauek argiak dira.
- ARGUDIO BIDEZKOA** Jo eta txikituko zaitut.
- ARGUDIO BIDEGABEA** A bai? Zer eginez?
- ARGUDIO BIDEZKOA** Zuzena dena aurkeztuz.
- ARGUDIO BIDEGABEA** Nik, kontra eginez, dena zapuztuko dut. Gainera, diot justizia ez dela existitu ere egiten.
- ARGUDIO BIDEZKOA** Ez dela existitzen diozu?
- ARGUDIO BIDEGABEA** Ez. Bestela, ea, non dago?

- ARGUDIO BIDEZKOA** Jainko-jainkosen alboan.
- ARGUDIO BIDEGABEA** Eta justizia existitzen bada, nolaz ez zen Zeus hil bere aita preso hartzeagatik?
- ARGUDIO BIDEZKOA** Ui, ui, ui... Gero eta okerrago ari gara! Emadazu palankana bat, gonbitoak botatzeko.
- ARGUDIO BIDEGABEA** Agure txotxatu bat zara eta zaharkituta zaude.
- ARGUDIO BIDEZKOA** Eta zu gizagaldu lotsagabea...
- ARGUDIO BIDEGABEA** Loreak botatzen dizkidazu...
- ARGUDIO BIDEZKOA** ...irrigarria...
- ARGUDIO BIDEGABEA** ... eta lilaz koroatzen nauzu.
- ARGUDIO BIDEZKOA** ... eta aita jotzen dutenetakoa zara.
- ARGUDIO BIDEGABEA** Ez al duzu ikusten urrez estaltzen ari zatzaizkidala?
- ARGUDIO BIDEZKOA** Aurreko garaietan bageunde, berunez estaliko zintuzket.
- ARGUDIO BIDEGABEA** Orain, ordea, horiek niretzako laudorioak dira.
- ARGUDIO BIDEZKOA** Lotsagabea.
- ARGUDIO BIDEGABEA** Zaharkina.
- ARGUDIO BIDEZKOA** Zure erruz, gazteek ez dute eskolara joan nahi, baina egunen batean zehazki jakingo da zer irakasten ari zatzaizkien atenastar babo horiei.
- ARGUDIO BIDEGABEA** Krakatsu horrek nazka ematen duzu.
- ARGUDIO BIDEZKOA** Zuri, berriz, oso ondo doakizu, nahiz eta lehen eskean ibiltzen zinen, zure zakutotik ateratzen zenituen Pandeletoren esakuneak mutxikatzen.
- ARGUDIO BIDEGABEA** Hori buruargitasuna...
- ARGUDIO BIDEZKOA** Hori zorakeria...
- ARGUDIO BIDEGABEA** ... esan duzun horretan!
- ARGUDIO BIDEZKOA** ... zurea eta jaten ematen dizun hiriarena, bere gazteak galtzen dituzun bitartean.

- ARGUDIO BIDE GABEA** Ez zara ba zu izango honen irakasle izatekoa? Kronosen garaikoa zara eta!
- ARGUDIO BIDEZKOA** Izango naiz, bai. Salbatu egin behar da ez dadin soilik hitzontzikerian trebatu.
- ARGUDIO BIDE GABEA** (*FIDIPIDESi.*) Zatoz nirekin, eta uztazu hori bere txoroaldian.
- ARGUDIO BIDEZKOA** Damutuko zara, eskua gainean jartzen badiozu.
- KORIFEOA** Utzi borrokan egin eta elkar iraintzeari. (*BIDEZKOari.*) Egiguzu garai bateko gizakiei irakasten zenienaren erakustaldi bat, eta zuk (*BIDE GABEari.*) hezkuntza berriaren erakustaldi bat, honek entzun ditzan zuen arrazoi kontrajarriak, eta erabaki dezan noren eskolara joan nahi duen.
- ARGUDIO BIDEZKOA** Horixe egin nahi nuke nik.
- ARGUDIO BIDE GABEA** Nik ere bai.
- KORIFEOA** Ale ba. Biotan nor hasiko da?
- ARGUDIO BIDE GABEA** Honi utziko diot abantaila. Gero nik, esan duena oinarri harturik, guztia bertan behera botako diot, hitz eta arrazoinamendu berrieekin. Azkenik, marmarka jarraitzen badu, nire ideiek azpiratuta akabatuko dut aurpegia eta begiak zulatuta liztorrek helduta bezala.
- KORUA** Orain, bi hauek beren argudio ikaragarritzkoetan eta ideia esakune-sortzaileetan ondo fidaturik, erakutsiko digute biotan nor den onena. Jokoan dagoena jakinduria da, eta horri buruzkoa da orain lagunon eztabaida erabakigarria.
- KORIFEOA** (*ARGUDIO BIDEZKOari.*) Zuk, gizakiok ohitura ederrez koroatu dituzun horrek, bota horren atsegin duzun zure ahotsa, eta azal ezazu nolakoa zaren.
- ARGUDIO BIDEZKOA** Azalduko dut nolakoa zen hezkuntza antzina, ni loratu nintzenean justizia lagun, eta ondo portatzea ohikoena zenean. Hasteko, ezin zen inongo haurren ahotsik entzun, ezta isil-isilik ere. Gero, auzo bereko gazteek, zitara-jotzailearengana joateko, kaleetan ibili behar zuten taldean, ondo lerrokatuta, eta kaparik gabe, nahiz eta eho gabeko oloa bezalako elur malutak ari. Zitara-jotzaileak buruz ikasi beharreko kanturen bat irakasten zien, esaterako "Palas, hiri suntsitzailea" edo "Urrutian entzuten den oihua", eta abestu egin behar zuten izterrak itxi gabe, beren gurasoengandik jasotako harmoniaz. Baten batek tontoarena egiten bazuen, edo Frinisek boladan jarritako apainduraren bat, orain egiten diren bezalako ahots

inflexiorik egiten bazuen, jipoia berotzen zioten Musak gutxiesteagatik. Eta gazteak gimnasia irakaslearen etxean esertzen zirenean, izterrak aurrera luzatu behar zituzten, ezer desegokirik ager ez zedin. Eta gero, berriro zutitzen zirenean, hondarretan utzitako arrastoa ezabatu behar zuten, ez uzteko bere maiteentzat euren gizentasunaren aztarnarik. Inongo mutil ez zen olioztatzen zilborretik behera, irasagarretan bezala bere lotsarrietan loratu zedin ihintzez estalitako bilo samurra; eta, ibiltzean, ezin zion bere maitaleari ahots belusaturik jarri, ezta keinurik egin ere bere burua eskaintzeko. Bazkarietan, ezin zuten errefauaren bururik hartu, ez nagusiagoen aneta edo apiorik harrapatu, ezta gozokiak hartu edo ezkutuka barre egin ere, eta zangoak ezin zituzten gurutzatu.

ARGUDIO BIDE GABEA Zahar-kontuak. Txitxarrak, Zedides eta sakrifikatutako idiz betetako Dipolia²⁵ jaien usaina darie.

ARGUDIO BIDEZKOA Baina horrela hezitako gizonak izan ziren Maratonen borrokatu zirenak. Zuk, oraingoei, txiki-txikitatik irakasten diezu kapaz estaltzen. Eta ni amorratu egiten naiz Panateneatan dantzan egin behar dutenean, gehiago axola zaienean ezkutuaz beren buztana estaltzea, Tritogenia²⁶ baino. Beraz, gazte, aukera nazazu ni, Argudio Bidezkoa, beldurrik gabe, eta trebatuko zaitut agora gorrotatzen, bainu-etxe publikoak gorrotatzen, gauza lotsagarriez lotsatzen, inork iraintzen bazaitu haserretzen, adineko jendeari eserlekua uzten, gurasoekin ondo portatzen, eta, oro har, Ohorearen estatua ohoregabetuko duen gauza gaitzesgarririk ez egiten; dantzarien etxeetara abailan ez joaten, gerta ez dadin putatxo baten sagarrek atzituta zure izen ona galtzea, aitari ez kontra egiten eta bere adina ez aurpegiatzen Japeto deituta, urteotan guztiotan berak zaindu baitzaitu txoritxo bat bazina bezala.

ARGUDIO BIDE GABEA Kasu egiten badiozu, motel, Hipokratesen semeak bezain zikin eta gaizki hezitakoa izango zara, eta zuntzuna esango dizute, ala Dioniso!

ARGUDIO BIDEZKOA Horrela, sasoiko eta fresko, lore antzo, gimnastikako ariketetan erabiliko duzu denbora, eta ez agoran zentzurik gabeko tentelkeriak eztabaidatzen, oraingoen moduan, eta ez zaituzte txikikeriazko kontuek arrastaka eramango, asko jakin ustez, ezer ez dakiten iruzurgileak eramaten dituen bezala; aitzitik, Akademiara jaitsiko zara, eta, olibondo sakratuen azpian, korri egingo duzu ihi hezeez koroatuta, zure adineko adiskide on batekin, eta hagin usaina izango duzu, eta axolagabetasunaren usaina, eta hosto erorkorreko zurzuriarena, udaberriaz gozatzen, platanondoak zurzuriari xuxurlatzen dionean.

²⁵ *Dipoliak* Zeusen omenezko jaiak ziren. Zedides poeta garaikide bat zen, baina antzinako formen zalea. Eta mende haren hasieran moda izan zen urrezko txitxarrak erabiltzea apaingarri gisa. Hori ere, Aristofanesen garairako, zaharkitutako ohitura zen.

²⁶ Atenari deitzeko modua.

Esaten dizkizudan gauza horiek egiten badituzu eta horiei arreta jartzen badiezu, beti izango duzu bular distiratsua, azal distiratsua, sorbalda handiak, mihia motza, ipurdi handia, hanka-tarteko txorten txikia. Aldiz, oraingoan gauza berberak egiten badituzu, lehenik eta behin izango dituzu larruazal zurbila, sorbalda txikiak, bular ahula, mingain luzea, ipurdi txikia, mondongoa handia. Dekretu luzeak proposatuko dituzu eta honek konbentzituko zaitu (*ARGUDIO BIDE GABEA seinalatu.*) zintzotzat har ditzazun zitalkeria guztiak, eta zitaltzat, zintzoak. Eta horretaz gain, Antimakoren maritxukeria guztiak kutsatuko dizkizu.

KORUA Jakinduria gorenetan ospetsuena lantzen duzun hori! Zein gozo aurkitzen den zure hitzetan bertutearen lorea! Zinez zoriontsuak ziren orduan, arbasoen garaian, bizi zirenak. (*ARGUDIO BIDE GABEAri.*) Horren aurrean, zuk, inspirazio fina duzunak, gauza berriren bat esan behar duzu, aurrekoak ondo merezita baititu txaloak.

KORIFE OA Badirudi abila izan behar duzula honi kontra egin eta garaile atera nahi baduzu, zu barregarri geratzeko aukerarik utzi gabe.

ARGUDIO BIDE GABEA Aspaldi ari naiz neure baitan itotzen, kontra argudioak erabiliz, honek esandako guztia zapuzteagatik. Izan ere, pentsatzen duten gizakiek hain justu horrexegatik deitzen naute Argudio Bidegabea, ni izan nintzelako lehena ohiturak ezarritako bideetatik at, auzi zuzenei kontra egiten ausartu nintzena. (*FIDIPIDESi.*) Eta horrek hamar mila estatero baino askoz gehiago balio du, argudiorik txarrenekin garaile ateratzeak. Errepara iezaiozu nola aurka egingo diodan berak jarraitu duen hezkuntza moduari: honek, hasteko, ez dizula ur berotan bainatzen utziko esan dizu. (*ARGUDIO BIDEZKOAri.*) Ea, zer dela eta gaitzesten dituzu bainu beroak?

ARGUDIO BIDEZKOA Koldarren gauzak direlako eta gizonak txepeltzen dituztelako.

ARGUDIO BIDE GABEA Kieto hor! Gerritik harrapatuta zauzkat ihes egin ezinezko moduan. Tira, esan: zure ustez zein da, Zeusen semeen artean, gizonik adoretuena, lanik zailenak burutu dituena?

ARGUDIO BIDEZKOA Nik uste ez dagoela Herakles baino gizon hoberik.

ARGUDIO BIDE GABEA Ederki. Ba, ikusi al duzu sekula "Heraklesen bainuak" hotzak direnik? Eta bera baino gizonagorik ez dago...

ARGUDIO BIDEZKOA Horrelakoak, horrelako kontuetan ematen dituzte gazteek egunak hitzekin jolasean, eta horregatik daude bainu-etxeak beteta eta borroka-lekuak hutsik.

ARGUDIO BIDE GABEA Agoran ematen dutela denbora ere gaizki iruditzen zaizu. Niri, berriz, ondo iruditzen zait. Gauza txarra balitz, Homerok sekula ez luke esango

Nestorri buruz agora-gizona zenik, ezta gainerako jakintsuei buruz ere. Banoa orain hizkuntzara, honen ustez gazteek ez dute hizkuntza landu behar eta. Nire ustez, berriz, landu behar dute. Pertsona zintzoa izan behar dela ere esaten du. Hori gaitz ikaragarria! Inon ikusi al da jende zintzoari probetxuzko ezer gertatu zaionik? Esadazu, eta egin niri aurre, adibideak emanik.

ARGUDIO BIDEZKOA Jende askori. Peleok, esate baterako, bere aitzoa horregatik lortu zuen.

ARGUDIO BIDEGABEA Aizto bat? Hori irabazi apartekoa! Hiperbolok, berriz, kriseiluen negozioarenak, talentu pila irabazi zuen pikaro-mandila izateagatik, baina, egia, aiztorik ez zuen lortu, o Zeus!, aiztorik ez.

ARGUDIO BIDEZKOA Gainera Peleo Tetisekin ezkondu zen zintzoa zelako.

ARGUDIO BIDEGABEA Eta laster asko utzi zuen Tetisek, eta alde egin zion Peleo ez zelako sutsua, eta senarrari ez zitzaiolako gustatzen gau osoa berarekin izaratan lardaskan pasatzea. Emakumeak atsegin du haragikeriaz trata dezaten. Zu Krono bezain zaharkina zara. Beraz, zuk, motel, begiratu ondo pertsona zintzoa izateak zer dakarren eta zenbat plazerez gabetuko zaituen: mutil gazteak, andreak, jokoa, jaki gozoak, edariak, algarak. Zertarako nahi duzu bizi gauza horiek falta bazaizkizu? Puntu honetatik naturak ezarri dizkigun ezinbesteko premietara pasatuko naiz. Jar dezagun, hutsegite bat izan zenuela, emakume ezkondu batez maitemindu zarela eta harrapatu egin zaituztela. Zureak egin du, ez bazara ondo hitz egiteko gai. Ordea, nirekin maiz ibiltzen bazara, askatu zure natura, egin jauzi, egin barre, eta ez ezergatik lotsatu. Adulterioan harrapatzeko zori txarra baduzu, erantzun senarrari ez duzula ezer txarrik egin. Gero errua Zeusi bota, eta esan bera ere maitasunak eta emakumeek mendean hartzen dutela, eta zu, gizakia izanik, nola izan zintezke ba jainko bat baino indartsuagoa?

ARGUDIO BIDEZKOA Eta zuri kasu egiteagatik errefau bat sartzen badiote ipurtzulotik eta errautsez kentzen badiote ilea?²⁷ Zein argudio erabil dezake atzeko zulotik hartzera eraman ez dezaten?

ARGUDIO BIDEGABEA Eta zer gertatuko litzateke ba? Zer dauka txarra atzeko zulotik hartzeak?

ARGUDIO BIDEZKOA Hori baino gauza okerragorik gertatu al dakioke ba?

ARGUDIO BIDEGABEA Puntu honetan irabazten badizut, zer esango duzu?

ARGUDIO BIDEZKOA Ezer ez, isildu egingo naiz.

ARGUDIO BIDEGABEA Erantzun ba. Abokatuak, zein motatakoak dira?

²⁷ Adulterioegileei ezartzen zitzaaien ohiko zigorra.

- ARGUDIO BIDEZKOA** Popatik hartzen dutenak.
- ARGUDIO BIDEGABEA** Ados. Eta aktoreak eta antzerki egileak, zein motatakoak dira?
- ARGUDIO BIDEZKOA** Popatik hartzen dutenak.
- ARGUDIO BIDEGABEA** Ondo esana. Eta politikariak?
- ARGUDIO BIDEZKOA** Popatik hartzen dutenak.
- ARGUDIO BIDEGABEA** Beraz, konturatu zaituz esaten duzun horrek zentzurik ez duela. Ikusleen artean ere begiratu ezazu zein motatakoak diren ugariago.
- ARGUDIO BIDEZKOA** Begira ari naiz.
- ARGUDIO BIDEGABEA** Eta? Zer ikusten duzu?
- ARGUDIO BIDEZKOA** Ugariagoa, askogatik, ala jainko-jainkosak, popatik hartzen dutenen multzoa da. Hor dagoen hori, behintzat, badakit baietz. Eta beste hura. Eta harantzagoko tximaluze hori (*Seinalatuz.*)
- ARGUDIO BIDEGABEA** Beno ba. Zer diozu orain?
- ARGUDIO BIDEZKOA** Txil egiten dut. E, maritxuok, har ezazue nire kapa jainkoen izenean, hauen artera pasatuko naiz eta! (*Kapa botatzen du eta hausnartokian sartzen da.*)
- ARGUDIO BIDEGABEA** (*ESTREPSIADESi.*) Zer? Zer nahiago duzu, zure seme hori hartu eta eraman, ala nik hizketan erakustea?
- ESTREPSIADES** Irakatsiozu eta zigortu. Eta gogoan izan ahots zorrotzez hornitu behar duzula, auzitxoak konpontzeko, alde batetik, eta mihi zorrotzez, bestetik, auzi potoloagoak konpontzeko.
- ARGUDIO BIDEGABEA** Egon lasai. Sofista trebe bihurtuta itzuliko dizut.
- FIDIPIDES** (*Aparte.*) Trebea baino zurbilago, esango nuke nik, eta koitadu bat eginda.
- KORUA** (*Hausnartokira doazen FIDIPIDES eta ARGUDIO BIDEGABEAri.*) Zoazte. (*Etxean sartzen ari den ESTREPSIADESi.*) Uste dut damutu egingo zarela.
- KORIFEOA** (*Ikusleei.*) Justiziazkoa den bezala, epaileek KORU honen alde eginez gero lortuko dituzten abantailak adierazi nahi ditugu. Izan ere, lehenik eta behin, lugorriak landu nahi badituzue, lehenik zuentzat egingo dugu euria eta gero besteentzat.

Gainera, uzta eta mahastiak zainduko dizkizuegu, lehorteak eta gehiegizko euriak ez ditzaten ito. Baina hilkorren batek gu, jainkosok, iraintzen bagaitu, gure aldetik zein gaitz jasango duen adi dezala: ez du ez ardorik ez beste ezer jasoko bere lurretik.

Izan ere, olibondoak eta mahastiak lehertzen direnean, kimuak di-da txikituko dizkiogu astinaldi gogorrez. Eta adreiluak egiten ikusten badugu, teilatuko teilak kazkabar ale biribilekin txikituko dizkiogu. Eta bera ezkontzen bada, edo bere senide edo lagunetako bat, euria egingo dugu gau osoan. Eta hala, agian Egipton egotea hobea irudituko zaio epaile txarra izatea baino.

(*ESTREPSIADES etxetik irteten.*)

- ESTREPSIADES** Bosgarrena, laugarrena, hirugarrena, ondoren bigarrena, eta azkenik, ni guztietan gehien beldurtzen nauen eguna, dardara eragin eta gaixotzen nauena, egun horren ondoren dator ilzahar-eta-ilberri²⁸ eguna. Nire hartzekodun guztiek zin egin dute zainpeko kopurua gordailutuko dutela, eta ondoren porrokatu eta birrindu egingo naute, nahiz eta nik bidezko eta neurrizko gauzak eskatzen dizkiedan: “Gizona, ez ‘zazu zati hau orain eraman, beste hau atzeratu, barkadazu bestea”. Eurek esaten dute horrela ez dutela sekula dirua berreskuratuko, bidegabea naizela aurpegiratzen didate, eta auzitan ariko direla nirekin. Ba orain, auzitan egin dezatela nahi badute. Fidipidesek ondo hitz egiten ikasten badu, hor konpon!
- Berehala jakingo dut, hausnartokian galdetuta. (*Atea joz.*) E, txo! Gazte! Txo!
- SOKRATES** (*Atean.*) Estrepsiades, agur.
- ESTREPSIADES** Agur zuri ere. Baina lehenik, tori hau. (*Dirua ematen dio.*) Nola edo hala erakutsi behar zaio errespetua irakasleari. Eta, semea? Esan, ikasi al du orain gutxi agertokira ekarri duzun argudio hori?
- SOKRATES** Ikasi du.
- ESTREPSIADES** Iruzurkeria ahalguztiduna, bai ondo!
- SOKRATES** Beraz, edozein auzitan garaile irtengo zara.
- ESTREPSIADES** Mailegua jaso nuenean lekukoak izan baziren ere bai?
- SOKRATES** Askoz errazago gainera, nahiz eta mila lekuko izan.
- ESTREPSIADES** Orduan nire garrasia ozenki oihukatuko dut: A! Egin negar, mailegu-emaileek, kapitalak eta interesen interesek! Jada ezin didazue kalterik egin, halakoxea baita niretzat etxe honetan hezi duten semea, aho biko

²⁸ 21. egunaren ondoren, atzeraka kontatzen ziren egunak, bederatzigarrena, zortzigarrena, e.a. *Ilzahar-eta-ilberri* eguna hilaren azkeneko eguna zen.

mihiaz distiratzen duena; nire gotorlekua, nire etxearen salbatzailea, nire etsaien kaltea, aitaren zorigaitz handiak desagerrarazten dituen. Zoaz bizkor eta dei egiozu nigana etor dadin. (*SOKRATES hausnartokian sartzen da.*) Seme, motel, atera hortik, entzun aitari! (*SOKRATES FIDIPIDESekin ateratzen da.*)

SOKRATES Hemen duzu.

ESTREPSIADES Bihotza!, maitea!

SOKRATES Zoaz berarekin. (*SOKRATES hausnartokian sartzen da.*)

ESTREPSIADES O, o! Ui, ui! Bai pozik nagoela ezer baino lehen zure azalaren kolorea ikusirik. Orain zu ikustea besterik ez dago lotsagabe eta kontraesaten duen horietakoa zarela jakiteko, eta zure aurpegian loratzen dira hain geurea den «zu zer?» ozarra, eta bidegabekeria jasaten ari garelako itxura egitea gu garenean bidegabekeria, denik handiena izanik ere, egiten ari garenak. Ondo dakit. Orain saia zaitez ni salbatzen, zu baitzara ni galdu ninduena.

FIDIPIDES Zerk beldurtzen zaitu?

ESTREPSIADES Ilzahar-eta-ilberri egunak

FIDIPIDES Existitzen al da ba ilzahar-eta-ilberri eguna?

ESTREPSIADES Bai. Nire hartzekodunek nire kontrako zainpeko kopurua gordailutuko duena.

FIDIPIDES Ba kopuru hori jartzen duenak galdu egingo du, ez baita posible bi egun egun bakar bihurtzea.

ESTREPSIADES Ezin da bihurtu?

FIDIPIDES Nola ba? Izan al liteke emakume bat zaharra eta gaztea aldi berean?

ESTREPSIADES Hori da, ba, ohitura.

FIDIPIDES Hori gertatzen da, nire ustez, ez dakitelako legeak zer esan nahi duen.

ESTREPSIADES Zer esan nahi du, ba?

FIDIPIDES Antzinako Solon berez herriaren adiskidea zen...

ESTREPSIADES Horrek zerikusirik ez du ilzahar-eta-ilberri egunarekin.

- FIDIPIDES** ...eta horregatik jarri zituen zitazioak bi egunetan, ilzabarrean ala ilberrian, gordailuak beti ilberrian egin zitezen.
- ESTREPSIADES** Eta zertarako erantsi zuen ilzaharra?
- FIDIPIDES** Adiskidea, salatutakoak egun bat lehenago aurkeztu zitezen, eta hola, arazoa bazterreratu zezaten garaia baino lehen eta euren borondatez; aukera baliatzen ez bazuten, ordea, ilberriaren egunaren goizean goizetik jada urduritzen hasten ziren.
- ESTREPSIADES** Eta orduan, nolaz ez dute epaileek zinpeko dirua ilberrian hartzen, ilzabar-eta-ilberri egunean baizik?
- FIDIPIDES** Ba uste dut jaietako jakien dastatzaileei²⁹ bezala gertatzen zaiela. Bezperan hartu nahi izaten dituzte diruak, ahalik eta lasterren hasteko bidegabeki xahutzen.
- ESTREPSIADES** Ederki. (*Ikusleei.*) Gaixoak, zer ari zarete hor ergel gisa eserita, gu buruargion probetxurako? Zuek harri-kozkorrak besterik ez zarete, zenbakiak, artalde zuntzuna, anfora pila bat! Kantu bat kantatzera noa neuretzat eta nire semearentzat, gure zori onagatik. “Zorionekoa Estrepsiades, bai argia jaio zarela, eta a zer seme bizkorra hazten ari zaren!” esango didate lagun eta bizilagunek inbidiaz, zuk auziak irabazten dituzunean zure oratoriari esker. Baina, lehenengo, barrura eraman nahi zaitut eta zu ospatu. (*Biak etxean sartzen dira. HARTZEKODUN bat dator lekuko batekin.*)
- HARTZEKODUN 1** (*Lekukoari.*) Gainera, gizon batek bere gauzak gal daitezen utzi behar al du? Inolaz ere ez. Hobe nuen orduan mailegua ukatu, orain arazoak izan beharrean: kontua da orain honaino ekarri zaitudala nire lekuko izan zaitezen nirea den diru bat berreskuratzeko. Gainera bizilagun baten etsai bihurtuko naiz. Baina, bizi naizen artean, Atenasen ospe auzizaleari utsiko diot; beraz, Estrepsiades deitzen dut...
- ESTREPSIADES** (*Etzetik ateratzen.*) Nor da hor?
- HARTZEKODUN 1** ...Ilzabar-eta-ilberriarako.
- ESTREPSIADES** (*Ikusleei.*) Zuek testigu bi egun desberdin esan dituela. (*HARTZEKODUNari.*) Zer dela eta?
- HARTZEKODUN 1** Zaldi gris orbanduna erosteko utzi nizkizun hamabi minak direla eta.
- ESTREPSIADES** Zaldia. Entzun al duzue? Zaldia nik, guztiok dakizuen bezala, zaldiekin zerkusia duen guztia gorroto dudan honek!

²⁹ Apaturia jaietako jakiak bezperan probatzen ziren. Dastatzaile askok, horren aitzakian, jakirik onenak jaten zituzten.

- HARTZEKODUN 1** Ala Zeus! Eta gainera, jainko-jainkosen izenean zin egin zenuen ordainduko zenizkidala!
- ESTREPSIADES** Garai hartan nire Fidipidesek artean ez zuelako argudio garaiezina ikasi.
- HARTZEKODUN 1** Eta hori dela-eta nahi duzu orain zor didazula ukatu?
- ESTREPSIADES** Nola bestela aterako diot probetxua berak ikasitakoari?
- HARTZEKODUN 1** Eta prest al zaude zorra ukatzeko nik esaten dizudan lekuan jainkoen izenean zin eginik?
- ESTREPSIADES** Zein jainko?
- HARTZEKODUN 1** Zeus, Hermes eta Poseidon.
- ESTREPSIADES** Bai, horixe, Zeusen izenean, eta zinak zerbaitetarako balio dezan triobolo bat ordainduko dut gainera!
- HARTZEKODUN 1** Lotsagabe hori, lehertuko ahal zara!
- ESTREPSIADES** (*Bere arerioaren sabela ukituz.*) Honen azalak, ondo gatzatuta, balio dezake zahagi bat egiteko.
- HARTZEKODUN 1** Burlaka gainera!
- ESTREPSIADES** Arroa eta erdi izango da.
- HARTZEKODUN 1** Zeus handia eta gainerako jainko-jainkosen izenean! Ez zara libratuko zigorrik gabe!
- ESTREPSIADES** Grazia handia egin dit "jainko-jainkosen" horrek. Gainera, Zeusen izenean zin egitea barregarria da, buru pixka bat duen inorentzat.
- HARTZEKODUN 1** Egon ziur honen pagua jasoko duzula azkar baino lehen. Baina erantzun dirua ordainduko didazun ala ez, eta utzidazu joaten.
- ESTREPSIADES** Egon geldi, eta berehala emango dizut erantzun argi bat. (*Etxean sartzen da.*)
- HARTZEKODUN 1** (*Lekukoari.*) Zer egingo duela uste duzu? Jo egingo nauela?
- ESTREPSIADES** (*Pitxer batekin dator.*) Non dago dirua eskatzen didana? Esan, nola du izena honek?
- HARTZEKODUN 1** Nola duen izena? Pitxarra.

- ESTREPSIADES** Eta diruak eskatzen zabilta, zarena izanik? Nik obolo bat ere ez nioke emango “pitxemeari” “pitxarra” esaten dionari.
- HARTZEKODUN 1** Ez didazula ordainduko?
- ESTREPSIADES** Ez, nik dakidala. Beraz, zoaz txistu batean nire atetik.
- HARTZEKODUN 1** Banoa, eta gero, jakin dezazun, zinpeko dirua gordailutzen ez badut, fundi nadila! (*Badoaz HARTZEKODUN 1 eta lekukoa.*)
- ESTREPSIADES** Ba hamabi minez gain, diru hori ere galduko duzu. Ez nuke nahi zuri hori gertatzerik soilik “pitxar” esan diozulako ergel horrek. (*HARTZEKODUN 2. dator.*)
- HARTZEKODUN 2** Ai, ai, gaixoa ni!
- ESTREPSIADES** Horra! Eta nor da kexuka ari den beste hau? Ez da ba izango Kartzinoren olerkietako jainkoren bat hizketan ari zaiguna?
- HARTZEKODUN 2** Nor naizen? Zergatik jakin nahi duzu? Gizajo bat.
- ESTREPSIADES** Zoaz etorri zaren bidetik.
- HARTZEKODUN 2** O, jainkosa ankerra, nire gurdiaren gurpilak txikitu dituzun fortuna! O, Palas, nola suntsitu nauzun!
- ESTREPSIADES** Zein gaitz egin dizu Tlenpolemok?³⁰
- HARTZEKODUN 2** Ez niri isekarik egin, adiskide. Aitzitik, esan zure semeari ordain diezadala utzi nion dirua, jota nago eta.
- ESTREPSIADES** Zein diru?
- HARTZEKODUN 2** Utzi niona.
- ESTREPSIADES** Porru eginda zaudela iruditzen zait, bai.
- HARTZEKODUN 2** Bai, ala jainkoak. Gurdia gidatzen ari nintzen eta erori egin naiz.
- ESTREPSIADES** Orduan, zer dela-eta esaten dituzu astakeriak, asto batetik erori bazina bezala?
- HARTZEKODUN 2** Astakeria al da nire dirua berreskuratu nahi dudala esatea?
- ESTREPSIADES** Zeure onean zaudenik ez da posible.

³⁰ Olerki baten aipua da.

- HARTZEKODUN 2** Zer ba?
- ESTREPSIADES** Uste dut takateko galanta hartu duzula garunean.
- HARTZEKODUN 2** Eta nik, berriz, uste dut auzi baterako deituko zaitudala dirua itzultzen ez badidazu, ala Hermes.
- ESTREPSIADES** Beno, esan: zer uste duzu, Zeusek euritan aldiro ur berria botatzen duela, ala Heliok berriro igotzen duela gora lehen euritan erori den ur bera?
- HARTZEKODUN 2** Ez dakit eta ez zait batere axola.
- ESTREPSIADES** Hara! Nola izango da ba bidezkoa zuk dirua berreskuratzea, meteorologiaz ezer ez dakizu eta?
- HARTZEKODUN 2** Beno, aski diru ez baduzu, ordain iezadazu interesa gutxienez.
- ESTREPSIADES** Zera..., interesa? Zer arraio da hori?
- HARTZEKODUN 2** Zer izango da, ba, denbora pasa ahala, hileroko eta egunero handitzen eta handitzen ari den diru kopurua.
- ESTREPSIADES** Ondo esana. Ea ba: zer uste duzu orain itsasoa handiagoa dela lehen baino?
- HARTZEKODUN 2** Ez, ala Zeus, lehen bezalakoa da. Ezin da handitu.
- ESTREPSIADES** Orduan, sinpletzarra, nola liteke itsasoa ez handitzea nahiz eta ibaietako ura bertara isuri, eta zure dirua, berriz, gero eta handiagoa izatea? Tira, babes zaitez etxe honetatik kanpora. (*Etxekoei.*) Ekarri niri akuilua! (*Esklabo batek ekartzen dio.*)
- HARTZEKODUN 2** Honen lekukoak hartuko ditut.
- ESTREPSIADES** (*Akuilatzen duen bitartean.*) Arre! Mugitu ba! Mugi zaitez, zaldia!
- HARTZEKODUN 2** Ez al da hau lotsagabekeria agerikoa?
- ESTREPSIADES** Mugituko al zara? Akuilua sartuko dizut ipurditik, orga-zaldia! (*HARTZEKODUN 2 badoa.*) Ihesi? Banekien mugiaraziko zintudala, zure gupil eta zure zaldi eta guzti. (*ESTREPSIADES bere etxean sartzen da.*)
- KORUA** Zer den arazo gaiztoak maitatzea! Zeren agure honek, haietaz maitemindurik, maileguan jasotako dirua atxiki nahi baitu. Eta ez da posible gaur sofista honi, bat-batean, egin nahi izan dituen doilorkeriengatik arazorik ez sortzea. Izan ere, uste dut berak berehala aurkituko duela aspaldi eskatzen ari zena, bere semea trebea izan dadila

bidezkoa denaren aurkako epaiak argudiatzen, berarekin tratua duten guztien aurka garaile atera dadin, nahiz eta bere argudioak higuingarriak izan, eta agian, baliteke, bere semea mutu gera dadila desiratzea.

- ESTREPSIADES** Ai, ai, bizilagun, senide eta herrikideok, lagundu niri, faborez, astintzen ari zaizkit eta! Ai, gaixoa, nire burua, nire masaila! (*FIDIPIDESi.*) A, deabrua! Aita jotzen?
- FIDIPIDES** Bai, aita.
- ESTREPSIADES** Ikusten duzue? Jotzen ari zaidala onartzen du!
- FIDIPIDES** Bai horixe.
- ESTREPSIADES** Alproja, aita-hiltzaile, lotsagabea!
- FIDIPIDES** Esan berriz gauza horiek eta gehiago. Badakizu gustatu egiten zaidala irainak entzutea?
- ESTREPSIADES** Atsogizona! Ipurdia treska bezalakoa daukazu!
- FIDIPIDES** Bota holako lore asko!
- ESTREPSIADES** Aita joka?
- FIDIPIDES** Eta, gainera, arrazoi osoz jo zaitudala frogatuko dut, ala Zeus!
- ESTREPSIADES** Lotsagabe alaena! Nola izango da arrazoizkoa aita jotzea?
- FIDIPIDES** Nik ikusaraziko dizut, eta nire hitzekin irabaziko zaitut.
- ESTREPSIADES** Honetan irabaziko didazula?
- FIDIPIDES** Zalantzarik gabe eta erraz asko. Aukeratu bi argudioetatik zein defendatuko duzun.
- ESTREPSIADES** Zein bi argudio?
- FIDIPIDES** Bidezkoa ala Bidegabea.
- ESTREPSIADES** Joño, adiskidea... Bidezkoaren kontra argudiatzen ederki irakatsi dizute, baldin aita jotzea zuzen eta egokia dela argudiatzeko gauza bazara, ala Zeus!
- FIDIPIDES** Benetan uste dut konbentzituko zaitudala. Entzuten didazunean, ez duzu ezer kontran esango.

- ESTREPSIADES** Jakina, esatera zoazena entzun nahi nuke.
- KORUA** Zure lana, agure, gizon hau nola garaituko duzun asmatzea da, zeren hau ez bailitzateke hain lotsagabea izango, zerbaitetan konfiantzarik ez balu. Zerbaitek adorea ematen dio. Bere harrokeria oso argia da.
- KORIFEOA** Koruari nahitaez esan behar diozu eztabaida zergatik hasi den.
- ESTREPSIADES** Esango dizut zergatik hasi garen elkar iraintzen. Dakizuen bezala, festa egin dugu, eta ondoren esan diot lira hartzeko eta Simonidesen kantu bat kantatzeko, "Nola moztu zuten aharia". Berehala esan dit zaharkituta zegoela lira jotzea edaten den bitartean, emakumeek garagar txigortua ehotzen dutenean bezala.
- FIDIPIDES** Eta orduan ez al zenuen makilatzea eta ostikoka erabiltzea merezi? Niri kantatzeko esan, festa txitxarrentzat egiten ariko bazina bezala...!
- ESTREPSIADES** Orduan ere hor barruan orain esaten ari den bezalako gauzak murmurikatu ditu, eta Simonidesez esaten zuen olerkari txarra dela. Nik hasieran, ederki kostata, baina eutsi egiten nion. Baina geroxeago esan diot sikiera mirto adaxka bat hartu eta Eskiloren zerbait errexitatu ziezadala. Orduan esan dit: "Ba nire ustez, Eskilo da poeta guztietan gorena azantza, koherentziarik eza, hanpadura eta arroak bezain handiusteak diren hitzak sortzen".
Eta nola uste duzue egiten zuela orduan nire bihotzak taupa? Baina nik, nire amorrazioa hausnartuz, esan diot: "Ba errezita ezazu modernoan zerbait, pasarte asmotsuren bat". Eta berehala Euripidesen erretolika bat bota dit: nola anaia batek, -oi gaitzetatik libratzen gaituzun jainkoa!-, ama bereko arreba bati txortan egiten zion, eta orduan ja ezin izan dut gehiago, eta hitz gogor eta laidogarri asko esan ditut.
Eta, jakina, gero, normala den bezala, elkar irainka hasi gara. Gero berak nire gainera jauzi egin eta zanpatu, txikitu, ito eta birrindu egin nau.
- FIDIPIDES** Eta ez al dut ondo egin, zuk denetan argiena den Euripides ez goraiatu ondoren?
- ESTREPSIADES** Denetan argiena? Zu... ez dakit zer deitu zuri. Hobe, ez ezer deitzea, berriz joko nauzu eta.
- FIDIPIDES** Bai, Zeusen izenean, eta eskubide osoz.
- ESTREPSIADES** Eskubide osoz? Ni, lotsagabe hori, ni naiz hazi zintuena zezelkatzen zenuen guztiari erreparatuta zer nahi zenuen jakiteko. "Mama" esaten bazenuen, ulertu egiten nizun eta ura ematen nizun; "papa" eskatzen bazenuen, ogia ekartzen nizun; "kaka" esan orduko, zu hartu eta etxeko atera ateratzen zintudan eusten nizun bitartean.

Baina zuk orain, itotzen ninduzun bitartean, nik garrasika kaka egin nahi nuela oihukatzen nuen arren, ez nauzu, madarikatu horrek, kanpora atera nahi izan, eta, itolarri hartan, bertan kaka egin dut.

- KORUA** Uste dut gazteen bihotzak zer esango duen entzuteko irrikatan daudela. Honek, egindakoak egin ondoren, bere hitz jarioarekin konbentzitu behar bagaitu, zaharron azalak ez du tipula zahar bat balio.
- KORIFEOA** (*FIDIPIDES*.) Hitz berriak irauli eta astintzen dituzun horrek gu konbentzitzeko modu bat aurkitu behar duzu, esaten duzunak bidezkoa dela eman dezan.
- FIDIPIDES** Bai atsegina gauza berri eta asmotsuez arduratzea ohitura zaharrak gutxietsiz! Nik arreta hipikari soilik jartzen nionean ez nintzen gauza hiru hitz segidan esateko hanka hondoraino sartu gabe. Orain, ordea, horrek (*ESTREPSIADES seinalatuz*.) zaldi kontuak bazterrarazi zizkidanez gero, esakune sotilen laguna egin naiz, argudio eta pentsamenduen lagun. Horregatik uste dut frogatu ahal izango dudala norberaren aita jotzea bidezkoa dela.
- ESTREPSIADES** Orduan, jarraitu zaldiekin, ala Zeus! Nahiago dut koadriga bat mantendu, makilazoka txikitu nazaten baino.
- FIDIPIDES** Hitzaldia eten didazun lekuan berreskuratuko dut, eta hasteko zera galdetuko dizut: txikia nintzenean jotzen ninduzun?
- ESTREPSIADES** Bai, zureganako maitasunez, zutaz arduratzen nintzelako.
- FIDIPIDES** Tira, orduan ez al da bidezkoa nik ere, zureganako maitasunez, zu jotzea, norbaitez arduratzea hura jotzea izanik?
Zergatik libratu behar duzu zuk kolpeetatik eta nik ez? Ni ere libre jaiotako gizona naiz. Seme-alabek negar egiten dute; aitek ez dutela negar egin behar uste duzu?
Esango didazu ohituraz negar egiten duena umea dela, baina erantzungo dizut zaharrak berrumetu egiten zaretela eta, beraz, umeek baino bi aldiz negar gehiago egitea dela normala, zaharren akatsak ez baitira hain barkatzeko modukoak.
- ESTREPSIADES** Baina inongo legek ez du onartzen aita horretatik pasatzerik.
- FIDIPIDES** Legeak ezarri zituztenak zu eta ni bezalako gizonak ziren, eta antzinakoak konbentzitzen zituzten hitzaldien bitartez. Ezingo al dut nik etorkizuneko semeentzako lege berri bat ezarri, eurek beren aitak jo ditzaten?
Legea ezarri aurretik hartu ditugun kolpeak ez ditugu kontuan izango, eta berotu dizkiguten jipoiei ameto emango diegu ondoriorik gabe. Begira oilarrak eta beste piztia batzuek nola mendekatzen diren beren gurasoez.

Eta horien eta gure arteko alde bakarra da animaliek ez dutela dekreturik egiten.

ESTREPSIADES Oilarren ereduari jarraitu behar badiozu, zergatik ez duzu gorotza jaten eta kotan lo egiten?

FIDIPIDES Ez da gauza bera, txo, eta Sokratesi ere ez litzaioke irudituko.

ESTREPSIADES Orduan ez ni jo. Gainerakoan, egunen batean damutuko zara.

FIDIPIDES Nolaz?

ESTREPSIADES Nik zu zigortzea bidezkoa delako, eta zuk, inoiz semerik baduzu, hura zigortzea ere bidezko izango delako.

FIDIPIDES Baina semerik ez badaukat, nire malkoak alferrik izango dira, eta zu hilko zara niri iseka eginik.

ESTREPSIADES (*Ikusle zaharrei.*) Nire adinekook! Gauza zuzenak esaten ari dela iruditzen zait. Eta arrazoizkoa dena eman behar diegula ere uste dut. Normala da, izan ere, guk gaizki egindakoagatik ordaindu behar izatea.

FIDIPIDES Hona beste argudio bat.

ESTREPSIADES Ez, nire galbidea izango da eta.

FIDIPIDES Agian ez zaizu horren gaizki irudituko orain jasan duzuna jasan izana.

ESTREPSIADES Nola? Azal iezadazu zer onura atera ahal izango diodan nik.

FIDIPIDES Ama joko dut zu jo zaitudan bezala.

ESTREPSIADES Baina, baina zer diozu? Hori are zitalkeria okerragoa da!

FIDIPIDES Zer iruditzen, argudio bidegabea erabiliz, ama jo behar dela sinestarazten badizut?

ESTREPSIADES Hori egiten baduzu, erremediorik gabe botako zaituztedala amildegian behera zu, Sokrates eta argudio bidegabea. (*KORU*Ari.) Hodeiok, hau zuen erruagatik gertatu zait, zuen eskuetan uzteagatik nire arazo guztiak.

KORIFEOA Zurea da erru guztia, zitalkerietan jardun zarelako.

ESTREPSIADES Eta zergatik ez zenidan hori esaten lehen, agure zahar kaiku honi putzak eman beharrean?

- KORIFEOA** Hori egiten dugu beti, zitalkerietarako zaletasuna daukan norbait topatzen dugunean. Zorigaitzetan amiltzen dugu, jainko-jainkosen beldur izaten ikas dezan.
- ESTREPSIADES** Gaixoa ni, Hodeiok! Gogorra da, baina zuzena, ez bainuen lapurtu behar maileguan utzi zidatena. (*FIDIPIDESi.*) Orain, beraz, maitea, zatoz nirekin Kerefon putakume hori eta Sokrates akabatzeraz, engainatu egin gaituzte eta.
- FIDIPIDES** Ezingo nieke nire irakasleei kalterik egin.
- ESTREPSIADES** Bai, bai, errespetua badiozu Zeus Aitari.
- FIDIPIDES** “Zeus Aita”? Bai antigoelekoa zarela! Ez da existitzen Zeus.
- ESTREPSIADES** Existitzen da.
- FIDIPIDES** Ez da existitzen, eta agintzen duena Haize-erauntsia da, Zeus airean bidalita.
- ESTREPSIADES** Ez du bidali, nik edalontzi honen erruz (*Hausnartokiaren sarreran apaingarri gisa dagoen buztinezko kopa bat seinalatzen du*) hala uste nuen arren. Bai ergela ni, jainko bat kopa batekin nahastea!³¹
- FIDIPIDES** Tira, tira, aldrebeskeriak bota bakarka, eta jarraitu disparateak esaten. (*Bere etxean sartzen da.*)
- ESTREPSIADES** Ai, ene! Hau txoroaldia! Burua galdu nuen jainko-jainkosak baztertu nituenean Sokratesen erruz! (*Etxe atarian daukan Hermesen estatua bati.*) Baina ez nirekin haserretu, eta ez nazazu txirtxilatu, Hermes maitea: erruki zakizkit euren hitzontzikeriak erotu ninduelako, eta izan nire aholkulari, euren kontra jo behar badut auzi bidez edo iruditzen zaizun moduan. (*Hermesi entzuten ari zaiolako itxura egiten du.*) Ederki, aholkatu didazu ez nadila auzietan sartu, eta berehala su eman diezaiodala hitzontzi horien etxeari. (*Bere etxe aldera oihuka.*) E, Jantias, hator eta ekarri eskailera eta aitzurra, eta, hire nagusia estimatzen baduk, igo gero hausnartokira eta txikitu teilatua, etxea gainean eraisten diean arte. (*Esklaboa etxetik ateratzen da esan diotenarekin, eta hausnartokiaren teilatura igotzen da.*) Ekarriri niri zuzi piztu bat, gaur bertan ordainduko dizkit-eta baten batek egin dizkidan guztiak, hamalau ahoberoa izanagatik. (*Ekartzen dioten zuzia hartuta teilatura igotzen da.*)
- DIZIPULUA** (*Barruan.*) Ai, ai!

³¹ Euskaraz ez dago “haize-erauntsia” eta “kopa” hitzak nahasterik. “Edalontzia” da topatu dugun antzekoena.

- ESTREPSIADES** (*Zuziaz su emanaz.*) Zuzi, bota ikaragarriko garraldi bat.
- DIZIPULUA** (*Agertuz.*) Zertan ari zara, gizona?
- ESTREPSIADES** Zertan ari naizen? Zertan ariko naiz ba! Etxe honen zutabeekin elkarriketa sotil bat izaten.
- KEREFON** (*Leiho batetik.*) Ai ene! Nor ari zaio gure etxeari su ematen?
- ESTREPSIADES** Kapa kendu diozuen hura bera.
- KEREFON** (*Berdin.*) Hil egingo gaituzu, hil egingo gaituzu.
- ESTREPSIADES** Horixe nahi nuke, non eta aitzurrak ez dion nire esperantzari huts egiten, edo ez naizen nerau hemendik erori eta ez zaidan lepo-hezurra txikitzen.
- SOKRATES** (*Hausnartokitik ateraz.*) E! Zertan ari zara, teilatuko hori?
- ESTREPSIADES** "Airean nabil eta eguzkia gainbegiratzen dut".
- SOKRATES** Ai, ene! Ito egingo naiz!
- KEREFON** (*Lehen bezala.*) Ai, ene! Kiskalita hilko naiz!
- ESTREPSIADES** (*Lurrera jaitsita JANTIASekin.*) Eta zergatik iraintzen zenituzten jainkoak eta begiratzen zenioten Ilargiaren ipurdiari? Jazarri, kolpatu, jo mila arrazoigatik, baina, batez ere, jainko-jainkosak laidoztatzeagatik. (*KEREFON eta gainerakoak ateratzen dira hausnartokitik eta SOKRATESekin ihes egiten dute, ESTREPSIADES eta JANTIAS atzetik dituztela.*)
- KORIFEOA** Hartu kanporako martxa, gure koruak gaurkoz aski antzeztu du eta.